




ZIENTZIEN ZIENTZIEN ZIENTZIEN 25

PRENSA PRESS

ARRASATE



52. ASTRONOMIA

51. MATEMATIKA

EKOLOGIA

502. NATURA 504. INGURUGIRO ZIENTZIAK

56. FISICA

57. BIOLOGIA

MINERALOGIA

Zenbat buru, hainbat liburu

ETXE MOBEL

ALTZARIAK

LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua



ZORIONAK!!

Irinidad Diaz izan da
azaroaren 12ko
ETXE-MOBELen zozketaren irabazle
eta aurrez erosi zuen

**LOGELAREN BALIOA
BERRESKURATU DU**



Dena ETXEMOBELen
Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!

Araba Etorbidea, 5 (ESCATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tfnoa: 79 41 82 ARRASATE

Eskola eleanizduna

Historian zehar teoria guztiak ez dira egon elebitasunaren alde, mende honen hasieran elebitasuna kaltegarria zela zabaldu zuten batzuk, pertsona elebiduna eskizofrenikoa zela esaten baitzuten, hau da, nortasun bikoizduna. Beraz, elebidun izatea gaiso mentala izatearen parekoa zen. Orduz geroztik ez dira honenbeste urte pasa, baina dagoeneko, zorionez, inork ez du sinesten orduko teorian eta honen lekuko ditugu mundu zabalean hedatuta dauden hezkuntz sistema elebidunak, gurea barne. Zientzia guztiak garatuz joan dira eta hizkuntzen irakaskuntzak ere 25 urteotan izan duen bilakaera oso azkarra izan da. Gure herriko hezkuntzaren historian baditugu une aipagarriak, lehendabizikoa ikastolen sorrera, berari esker hezkuntz elebakardunetik elebidunera pasa baitzen gure herrian; geroago eskola publikoak ere eredu elebidunak bereganatuko zituen gaurko egoerara heldu arte. Une honetan, berriz, bi hizkuntza ezezik hiru eta zenbait kasutan lau ere ikasten dute gure hurrek zenbait eskolatan. Baina zertarako jakin nahi ditugu honenbeste hizkuntza? Zertarako hezkuntz elebiduna edo eleanizduna? Zeintzu dira hezkuntz elebidunaren abantailak elebakardunaren aurrean? Gai honen interesa nabaria da, eta honen lekuko garbia ditugu hile honetan izaniko bi kongresoak: bata Gasteizen eta bestea Sitgesen. Gasteizko kongresoaren gaia "Hiru eledun hezkuntza" izan da eta Sitgesekoa berriz, "Hezkuntz elebidun goiztiarra". Bietan azpimarratu dira hezkuntz eleaniz-

dunerantz joztearen abantailak eta interesak. Abantailen artean hiru dira gehien azpimarratu direnak: lehendabizikoa, eta logikoena, beste hizkuntza eta kultura ezagutzeak pertsonari ematen dion aberastasuna; bigarrena bi hizkuntza erabiltzen jakiteak

dituen eragin baikorrak pertsonaren inteligentzian eta hirugarrena pertsona elebidunak erraztasun handiagoa duela hirugarren zein laugarren hizkuntza bat ikasteko, hizkuntzen artean ematen den interdependentzia legea dela medio. Hiru hauetaz gain bada guretzat beste arrazoi inportante bat, ezen hezkuntz eleanizdunak edozein hizkuntza garatzea ahalbideratzen digu beste hizkuntzei uko egin gabe. Bestalde, esan, hezkuntz eleanizduna ezartzeko izaten diren motibazioak desberdinak direla. Batzutan etorkinentzat diseinatzen dira programa hauek, horrela, beren amahizkuntza mantentzeaz gain, harerako herriarena eta atzerriko hizkuntza bat ikasi ahal izango dute etorkinen seme-alabek; programa hauek Europako zenbait herritan hedatuta daude. Beste batzutan motibazioak izaera ekonomikoa izaten du eta honen adibide dugu Californiako zenbait eskolatan martxan dagoen murgiltze programa. Estatu Batuak Txina eta Japonekin dituzten harreman komertzialak areagotuz doazela ikusita, aipatu estadian martxan jarri dira hizkuntza hauetan murgiltze-eredu goiztiarrak. Programaren bukaeran ikasleek txineraz edo japonieraz gain inglesa ere menperatu behar dute. Hirugarren motibazio mota hizkuntza minoritarioen hiztunena da, gure kasua, beraz. Kasu honetan, hau da, programa elebiduneko hizkuntza bat minoritarioa denean, gizartearen garatzeko aukera gutxien duen hizkuntzari emango zaio lehentasuna diseinuan.

Bukatzeko esan, urte batzuk duela zientzia-fikziozkoa zirudiena errealitate bihurtzen ari dela gure eskolatan. Eta seguruasko urte batzuk barru eleaniztasuna izango da eskola guztietan normalizat hartuko den ezaugarria.

MATILDE SAINZ OSINAGA



Amaia Martiartu

MATILDE SAINZ OSINAGA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Ikeme Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Legordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Gaizka Olabarrieta.



**GATZAGAn,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetxea**




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jauriritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

**ARTOLA
KOMERTZIALA**

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE



Alkoholarekin arazoak
dauzazu?
Agian,
"Alkoholiko Anonimoek"
lagundu ahal dizute!!

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

.....
**Txakur kontua
dela eta**

Beti entzun izan da txakurrak gizakien lagunik onenak direla, eta bestela galdetu Jesus Mari Plazaola artzaieri edo inguruko edozein txakurduni.

Hala ere, badira txakur jabe batzuk euren txakurrekiko maitasun hori kalean ere erakusten dutenak eta gero eta normalagoa da txakurrak gure kaleetan eta ohizkoak ditugun tabernetan ere, hankarteetan izatea.

Horrez gain, azkenaldi honetan badirudi "zenbat eta txakur handiagoa, orduan eta hobeto!" pentsamoldea nagusitzen ari dela.

Badakit tabernak lagun onenekin poteoan ibiltzeko direna, baina karta honen bitartez gonbidatu egin nahi nituzke hain lagun onak dituzten txakur-jabeak euren txakurrekin dabiltzanean, edo mozalarekin edo eskutik lotuta izan ditzaten, izan ere, gainontzekook tabernetan zehar gure lagunekin gabiltzanean ez dugu zertan beldurrez eta adi egon behar, txakurren jolas edo joan-etorrietara.

Errespetu bat txakurrik gabekooi.

JOSEBA ELORZA

.....
**Goikobaluren
oharra**

Joan den astean "Goikobaluren CDA" izenburupean idatzitako artikulua-
ren gainean, Goikobaluk zerbait erantsi nahi du: Konpaktoa, MCCz gain, JOMA enpresak ere finantziatuko du.

GOIKOBALU

.....
Eskerrik beroenak

Gutun honen bidez Itziar Mujika zenaren familiak eskerrak eman nahi dizkie bere heriotzean familiari elkartasuna adierazi eta haren aldeko hileta elizkizunean parte hartu zuten lagun guztiei; eta eskerrikasko bereziki elizkizunean kantatu zuen abesbatzari. Mila esker.

**ITZIAR MUJIKAREN
FAMILIAK**

**PUB
HAIZEA**



**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Baserriko produkturik erosten duzu?




Timoteo Bergaretxe
Jubilatua
(82 urte)

Bai, baserrikoak beti hobeak izaten dira eta. Baserriko ogia, porruak... erosten ditut.



Ignazia Garro
Etxekoandrea
(63 urte)

Bai, azak, zarbak... dene-tik. Baserriko zarbak, adibide-z, beste gosotasun bat izaten du.



Iñaki Aspe
Euskadiko Kutzako langilea
(38 urte)

Erosi ez, nik neuk ortua daukat eta. Baina bai, ortuko dendakoa baino hobeak izaten da.



Eugenia Bengoa
Etxekoandrea
(80 urte)

Bai. Baserriko barazkiek barak edukitzen dituzte eta letxugak, adibidez, barak dituztenak izaten dira onenak.




Celestino Gastañaga
Jubilatua
(57 urte)

Bai, baserriko ogia, patatak, babak... Baserri batetik bestera ere, produktuak desberdinak izaten dira.



Isabel Mendizabal
Etxekoandrea
(64 urte)

Jakina. Nire ustez baserriko produktuak hobeak izaten dira, askoz ere finagoak.




Pedro Caballero
Jubilatua
(57 urte)

Bai, arraultzak batez ere. Tortila gosoagoa izaten da, baina nik uste ohitura kontua ere badela.



Tere Egidazu
Etxekoandrea
(42 urte)

Baserrikoak erosten ditut, era horretan badakidalako bertako produktuak direna.



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA DATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



Monte
taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igoalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubilagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 25
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.
Larunbata 26
 Egunez eta gauez: Amezua. Sta. Marina.
Igandea 27
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.
Astelehena 28
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.
Asteartea 29
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerias.
Asteazkena 30
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.
Osteguna 1
 Egunez eta gauez: Puy. Barrenkale. Bergara.
 10,00ak arte: Amezua. Sta. Marina.

25 OSTIRALA

ZINEA
 "Todo es mentira" 7etan eta 10etan.

EUSKALANEN IKASTAROA

Euskaraz alfabetatzeko ikastaroa, AEDk antolatua. Klaseak Gabonen ostean hasiko dira, astean birritan edo hirutan. Izenemateko epea abenduaren 2ra arte dago zabalik, izena emateko AEDren lokalerara joan edo 771228 zenbakira dei egin.



PINTURA ERAKUSKETA

Jose Angel Iturberen Pintura erakusketa Harresi aretoan, azaroaren 25etik abenduaren 11ra. Azaroaren 25ean Erakusketaren inaugurazioa egingo da. Ordutegia: Egunero 6etatik 8etara; larunbat eta jai egunetan 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.

26 LARUNBATA

ZINEA
 "Liberad a Willy" 5etan, "Todo es mentira" 7.30etan eta 10etan.

KONTZERTUA
 Atxabaltako Akordei orkestra, arratsaldeko 7.30etan Eskoriatzako Parrokian.

IV. UDAZKENEKO JAIALDIA
 IV. Udazkeneko jaialdia, Al-Andalus taldeak antolatuta, Eskoriatzako kiroldegian arratsaldeko 4etatik aurrera.

GAZTAINERRE JAIALDIA
 Arratsaldeko 5etatik aurrera herriko plazan 250 kilo gaztaina eta sagardo banatuko da borondatearen truke. Trikitilariak, txalaparta eta hankapaloak egongo dira. AED-ko gazte mobidak antolatuta.

KONTZERTUA
 Los Suaves" taldea, Musakolako kiroldegian, gaueko 10.30etan.

LOS SUAVES

Los Suaves talde galiziarak kontzertua eskainiko du Musakolako kiroldegian larunbatean, gaueko 10.30etan. "Santa Compañía" azken diskaren aurkezpena egingo du Arrasaten. Taldearentzat 7. diskoa izango da eta Madrileko Red Led estudioan grabatu dute. Los Suaves taldearen kontzertuaren aurretik "Kalean" taldeak joko du.

GAZTAINERRE JAIALDIA

Larunbatean 5etatik aurrera Herriko Plazan 250 kilo gaztaina eta sagardoa banatuko dira borondatearen truke. AEDko Gazte Mobidak antolatuta.



28 ASTELEHENA**ZINEA**

"Volar por los aires" 7etan eta 9.30etan.

MUGAK ZAITZEN

"Mendebaldeko inmigranteak" bideoaren emanaldia, Monterronen arratsaldeko 7etan. Gazte informazio bulegoak antolatuta. Sarrera dohanik.

HIES-EKIMENAREN SENSIBILIZAZIO ASTEA

Mundu osoko kartel erakusketa eta mahai informatiboak Monterronen. Orduategia: 10etatik 12etara eta arratsalde 6etatik 8etara.

LORAMENDI LITERATUR LEHIAKETA

Aretxabaletako Loramendi Kultur Elkarteak eta Udal euskara batzordeak VI. Loramendi literatur lehiaketa antolatu dute. Bi sailetan banatuko da lehiaketa; poesia eta ipuina. Gaia librea da. Lanak makinaz idatzita bidali beharko dira DIN-4 neurrian. Lanak aurkezteko epea abenduaren 22an bukatuko da.

**MENDI IRTEERA**

Alto Carrión, Picos de Europa irteera, abenduaren 3, 4, 5 eta 6an. Besaide mendi elkarteak antolatuta. Izenematea azaroaren 29, 30 eta abenduaren 1an, 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan. Prezioak: Bazkide nagusiek 4.000 pta, bazkide gazteek 3.000 pta, bazkide ez diren nagusiek 4.500 pta, bazkide ez diren gazteek 3.500 pta.

29 ASTEARTEA**ZINEA**

"Volar por los aires" 7etan eta 9.30etan.

HITZALDIA

"Mondraueko euskerie zelakue da?" Udaletxeko Pleno aretoa arratsaldeko 7etan. Hizlariak: Gotzon Garate (Deustuko irakaslea, dialektologian aditua) eta Jerardo Elortza (UNEDeko irakaslea, Arrasateko euskeraren ikertzailea) izango dira. AEDK antolatuta.

BIDEO EMANALDIA

Off bideoa "La colonización y la última frontera" Monterronen arratsaldeko 7etan. Gazte informazio bulegoak antolatuta. Sarrera doan.

HIES-EKIMENAREN SENSIBILIZAZIO ASTEA

Hiesari buruzko Bideo emanaldia Monterronen. Goizez 10etatik 12etara eta arratsalde 6etatik 8etara. Sarrera librea.

30 ASTEAZKENA**BIDEO EMANALDIA**

Off bideoa "Mugen bidez zatitako herriak" Monterronen arratsaldeko 7etan. Gazte bulegoak antolatuta. Sarrera doan.

SOLASALDIA

Juan Mari Irigoien idazlearekin solasaldia Eskoriatzako Udal liburutegian eguerdik 12etatik.

HITZALDIA

Gaia: "Momentuan momentuko aprobetxatuz". Hizlaria: Kontxi Argaya. Eskoriatzako kultur etxean arratsaldeko 6etan.

HITZALDIA

Gaia: "Hiesa, aspektu orokorrrak, egungo egoera". Hizlariak: Ana Luisa Arrieta, sendagilea; Marian Etxabe, O.N.G.ko partaidea eta Domi Korta, senidea. Arratsaldeko 7etan Pleno aretan.

1 OSTEGUNA**ZINEA**

Hies-Ekimenaren sensibilizazioa astearen barruan, zine emanaldia. "Pozioia" filmea. Amaia antzokian arratsaldeko 7.30etan.

EKINTZA AKADEMIKOA

Don Jose Maria Arizmendiarraren omenez ekintza akademikoa, Eskola Politeknikoan arratsaldeko 6.30etatik aurrera. 6.30etan aurkezpena Jesus Mari Herrasti jaunaren eskutik. 7etan Juan Velarderen hitzaldia. Ondoren Jose M^a Arizmendiarrieta IX. lehiaketaren sari banaketa.

AISIALDIRAKO BEGIRALE IKASTAROA

Abenduaren 3tik apirilaren 9ra, asteburutan Beasainen. 17 urtetik gorako gazteentzat. Prezioa: 30.000 pta.

RUGBY IKASTAROA EUSKARAZ

Abenduaren 17an 10etatik 12erata Rugby zapia, Rugby egokitua ikastaroa Bergarako Labegarrietako kiroldegian. Ikasle eta kirol monitoreek har dezakete parte. Prezioa 800 pta eta 500 pta Deba Bailarakoentzat. Irakaslea Iñaki Ugarteburu izango da, heziketa fsikoan lizentziatua eta rugby-ko entrenatzaile nazionala.



“Ez dago inongo euskara gutxiesterik. Halere, eukal egiturari begira (alderdi fonikoak eta lexikoak ez dute horrenbesteko inportantziarik) euskararik onena bizkaieraz egiten dela esan behar da. Batez ere Mondragoi, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio, Oñati eta herri horien inguruetan.

Horko euskarak baditu bizkaieraren alderdi on guztiak eta horien gaintik beste batzuk. Beraxe da guttien erromanizatu den euskara. (...)

Mondragoi-Oñati inguruetako euskarak, beraz, Gipuzkoako alderdi onak, Bizkaiko molde paregabeak eta horietaz gainera eskualdeko horretan bakarrik aurkitzen diren berezitasun aberasgarriak ditu. Antzinateko euskara bikaina, zinez!

Batzuei belarrietarako zakar eta basati irudituko zaie. Amazonasko oihanak ere baratzetxo ongi zainduak baino zakarrago eta basago dira. Bai eta askoz zoragarriago ere”.

Gotzon Garate 94-XI-4

DEIA

“Emakume adina menopausia-era dago eta aldakuntza hormonalei beste batzuk gehitzen zaizkie askotan. (...)

Seme-alabak izateko askoz aurretik prestatzen gaitu naturak, eta ez prestatu bakarrik, saritu ere egiten gaitu. Lehen haurra 25 urte baino lehen izaten duen emakumeak askoz ere babes gehiago du bularreko minbiziaren kontra. (...)

Erabiltzen ez diren gauzetatik gaixotzen da, eta bularrak erabili egin behar dira, titia emateak gaixotasunetatik babestu egiten baitu, eta esnearentzat ontzirik egokiena dira. Inongo multinazionalak ezin du asmatu emakumearena baino esne hoberik. (...)


Bularra ematearen baitartez, kultura, beroa eta maitasuna transmititzen ditugu eta pertsona biren arteko harremanak hobetu eta antigorputzak ere transmititzen ditugu. Umeari behar duen esnea ematen zaio eta umeak lan gehiago egiten du behar duen janaria lortzeko, eta hori ere ez da bat ere gaizki etortzen”.

Alfredo Otalora ginekologoak 94-XI-21

egin

Zer moduz joan da Arrasaten Talde Partehartzaileen bilera?

Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala Arrasateko Elkarrik, elkarrizketa eta gizartearen aldeko gizarte mugimenduak, herritarren hausnarketa eta partehartzea bultzatzeko bilera egin du. Herrian azaroaren 17an burutu zen bilera eta bederatzi arrasatearrek parte hartu zuten, moderatzaile baten gidaritzapean. Lagun horien aukeraketa, zentsotik alirizira hartutako zerrenda batetik egin zen. Gure asmoaren berri emanez



Mattin Amundarain

Elkarriko partaidea

eta parte hartzera gonbidatuz gutun bana bidali genien zerrendako partaideei eta handik gutxira telefonoz deitu prest ote zeuden jakiteko. Horrez gain, perfil desberdineko lagunak ere gonbidatu genituen eta esan bezala, azkenean pentsakera, adin eta izaera desberdineko bederatzi lagun bildu ziren, Euskal Herriko gatazkari buruz hitzegiteko.

Horrelako elkarrizketetan izateko ohiturarik ez duen eta elkar ezagutzen ez zuten jendea batu genuen arren eta hasieran zertxobait kosta bazen ere, azkenean oso giro egokia sortu zen. Bilerak iraun zuen bi orduetan zehar bakoitzak gatazkaren inguruko ikuspuntua eman zuen eta bukaeran ondorio batera heldu ziren besteak beste: hemen zerbait lortzeko pentsakera desberdineko jendearen parte hartzea beharrezkoa dela. Era berean, bileran hitzegindakoari buruzko txostena Tolosara (Elkarrik zentrala duen tokira) bidaliko da eta Euskal Herriko beste txosten batzuekin batera, Topaketei buruzko dossiera aterako dute.

Arrasateko tailerrean gabilitzanok, bileraren inguruko balorazio positiboa egin dugu eta horrelako ekimen gehiago izango balitz, egoera gatazkatsuz bukatzeko bide asko zabalduko liratekela uste dugu. Bukatzeko, bilerara hurbildu ziren guztiei eskerrik beroena ere eman nahi genieke, merezi dute eta.

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktoarea

- GENITALETAKO MINBIZIAREN PREBENTZIOA
- ANTISORKUNTZA
- MENOPAUSIA
- BULAR-PATOLOGIA
- ZIRUGIA

- HAURDUNALDIA
- JAIO AURREKO DIAGNOSTIKOA
- ANTZUTZE KIRURGIKOA
- ANTZUTASUNA
- GINEKOLOGIA PSIKOSOMATIKOA

Prezio bereziak 25 urtez beherako, etxekoandre eta 3. adinakoentzat
(Lagun-Aro Asegurua, igualatorio mediko-kirurgikoa,...)

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon M^a Lili, 2 (Lasa jatetxea izandakoaren atzekaldean) ☎: 76 59 39 / 76 59 72 FAX: 76 25 72

Atxiloketa

Joan den ostegunean Frantzian egindako polizia-operazioan Pilar Mondragón Zabala, 44 urteko arrasatearra atxilotu zuten. Itxura denez, 70. hamarkadaren amaieran Goierri komandoko partaide izatea leporatzen diote Pilar Mondragoni.


Bestalde Kas koordinakundeak antolatuta, ostiralean kontzentrazioa eta manifestazioa egin ziren, Loiu tiroketan hil zen ustezko ETAkidearen hilketaren aurka protestatzeko.

Jardunaldiak Aita Menni

Astelehen eta asteartean, buruko kalteei buruzko I. Jardunaldiak burutu ziren Aita Menni ospitalean. 230 lagunek hartu zuten parte jardunaldietan eta nazioartean ezagunak diren adituek eman zituzten hitzaldiak. Estatu mailan buruko kalteen unitatea jarri duen lehen ospitalea izan da Aita Menni. Unitate horretan lan, kirol edo trafikoko istripuak izan ondoren arazo fisiko eta psikikoak dituzten lagunen errehabilitazioan egiten dute lan.

Asanblada orokorra

Deba Garaiko zikloturistek asanblada orokorra egin zuten zapatu arrasaldean. Asanbladan aipatu zuten, oso jende



Hauteskunde sindikalak

Duela bi hilabete hasi ziren hauteskunde sindikalei buruzko balorazioa egin zuen LAB sindikatuak joan den ostiralean. Dagoeneko Deba Garaiko enpresa gehienetan aukeratu dituzte ordezkariak eta LAB oso pozik azaldu zen orain arte izandako emaitzarekin. 1990ean egin ziren hauteskudeetan, Deba Garaian hirugarren indarra izatea lortu zuen LABek, ELA eta CCOOen atzetik. Lau urte beranduago, LAB dagoeneko bigarren indarra da Deba Garaian eta baita Arrasaten ere.

Santa Zezilia

Asteartean musikarien eguna ospatu zuten Arrasate Musikaleko ikasle eta irakasleek. Arratsaldean meza berezia egin zen Santa Zeziliaren omenez eta Arrasate Musikaleko metal eta perkusio taldeek parte hartu zuten. Meza ostean, akademiako kamara orkestrak hiru obra eskaini zituen.



gutxi joaten da igandeko irteeretara elkarrekin 66 bazkide izan arren. Asanblada egin ostean afaria izan zuten eta bertan, hainbat sari banatu zituzten.

Moda Desfilea

Institutoko batxilergoko 3. mailak antolatuta, moda desfilea egin zen zapatuan Amaia antzokian. Sarrera guztiak saldu zirenez eta antzokia erabat bete zenez, desfileak arrakasta handia izan zuen.

Atxaga Arrasaten

Bernardo Atxaga idazleak eta bere taldeak Zeruak izeneko errezitaldia eskeini zuten asteazken ilunkaran Amaia antzokian. Kartzelatik irten berri den emakume baten historia kontatzen du lan berri horrek. 200 bat lagun izan ziren errezitaldian.

JAIOTZAK

- Ander Okina Mondragón. Azaroaren 12an.
- Asier Vicente Sanchez. 11an.
- Miren Errarte Errasti. 14an.
- Danel Pozo Romero. 14an.

HILDAKOAK

- Milagros Lazkano Arriaran. 13an. 54 urte.
- Tomas Ayerza Gogorza. 15ean. 71 urte.
- Severina Basauri Treviño. 16an. 77 urte.
- Mercedes Arregi Gaztelurrutia. 18an. 79 urte.
- Juana Francisca Ornobegoa Bilbao. 19an. 79 urte.
- Maria Donamaria Montoya. 20an. 68 urte.
- Jose Maria Arenaza Aginagalde. 20an. 62 urte.

DIAMIR

MENDIRAKO EKIPAMENDU TEKNIKOAK

Denda berria ireki dugu. Ez itsu-itsuan erosi. Eska ezazu aholkua. Jon Lazkanok emango dizu.

HARRURIAGA, 8 BERGARA ☎ - FAX: 76 08 84

URRATS

AHOLKULARITZA

CARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

PRESS
ARRASATE

Harpidetzak:
77 08 15

Ondo funtzionatu du Ikerlanek espaziora bidalitako gailuak

Columbia espazio-untziaren barruan eta Ramses proiektuarekin lotuta espazioratu zen Ikerlaneko gailuak, ondo funtzionatu du eta proiektuak arrakasta izan du. Espazio-untzi horretan egin ziren ikerketa zientifikotariko bat Ramses izenekoak izan zen eta Ikerlanek, ikerketa horretan erabili zen kontrol aparailua egin zuen. Ramsesen helburua, grabitate falta erabiliz espazioan proteinak garatzea izan da eta medikuntza arlorako, oso garrantzitsua izan da



esperimentua.

Ikerlanentzat erronka handia izan da horrelako misio batean parte hartzea eta

horregatik, aurrerapausua izan da enpresa horrentzat.

Ramses proiektuan 1989tik jardun dute lanean

Ikerlanen eta lau urtez 10 bat laguneko taldea ibili da proiektua garatzen.

Misioa bukatu arren, itxuraz denek Ikerlanek egindako gailuak izan dezake oraindik ere espaziora abiatzeko aukerarik.

Seguruenik, errusiarren estaziora pasako da gailua eta multinazionalen bat ikerketa egiteko prest azalduko balitz, gailua berriz ere espazioratu egingo litzateke.

Deba ibaiko isurketa argitu barik

Ez dago garbi, astelehenean goizean Deba Ibaia bota zuten isurketa nork bota ote zuen. San Andresen Fagor elektratresnak dagoen ingurutik urdin edo berde kolorez pasa zen Deba Ibaiko ura. Hori dela eta, hasiera batean isurketa Fagorrek botatakoa izango zela uste izan zen baina Iñaki Etxebarria, Fagor elektratresnetako medikuak adierazi

digunez, kolore horretako osagaririk ez dute erabiltzen eta ezinezkoa da Fagorrek botatakoa izatea. Bere ustez, guzti hori goragotik zetorren, hau da, Aretxabaleta aldetik. Arduradunen esanetan, Fagorreko hondakin toxikoak bidoietan sartu eta Gasteizko lantegi batera eramaten dira. Isocianato, estireno eta olio industrialak bezalako hondakinak urtean

bi edo hiru aldiz Gasteizko lantegi berezi horretara bidaltzen dituzte.

Ertzantzak, asteleheneko isurketaren froga batzuk hartu zituen eta Confederación Hidrográfica del Norte delako erakundera bidali zituen azterketa egin dezaten. Hamabost egun barru azterketa horren berri izango da eta seguruenik nork bota zuen ere jakingo da.

USTEAK USTE PLAZAGIZONAK

Mundu honetan dauden pertsonaia handiei buruzko goraipamenak entzutea eguneroko gauza da: horretarako daude komunikabideak, enpresa edota politika munduan ospetsuak diren pertsonaiak behin eta berriro gogora ekartzen dizkigute eta. Baina, bestalde, sekula ez gara ohartzen gure inguruan, koadrilan bertan, edo lanean beharbada, gertu izaten ditugu hainbat pertsona haundietaz, benetako pertsonaieztaz. Pertsona jatorrak, bihotz onekoak, umilak, eta batera alaiak, eta horregatik haundiak. Edozein txiste edo esaera barregarri botatzeko prest egoten direnak. Plazagizonak. Horiek dira, beraiek nahi gabe, bizitza alaitzen digutenak. Eta, un txar baten harrapatzen gaituzten arren, euren okurrentzia alai bati esker irripartxo bat ateratzen digutenak. Prolemarik ez dutela dirudite. Baina ez da horrela izaten, bizitzari aurre egiteko jokaeran baitago sekretua: alaitasunez, baikortasunez... Azken egun hauetan horietako pertsona bat joan zaigu, ebakuntza baten ondoren. Inazio, ez zaitugu berriz zure txofer lanean ikusiko. Ezta zure okurrentziak entzungo ere. Erakutsi zenigun alaitasunagatik eskerrak eman nahi nizkizuke. Eta omenalditxo hau eskaini.

JOSE RAMON ELORTZA

Onduline




Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



Matrikulazio datuei begiratu gero, jeitsiera demografikoaren eragina somatu egiten da.

A eredia desagertu 14 urte bitarteko irakaskuntzan

Arrasateko eskoletako matrikulazio datuek erakusten dutenez, A eredia (gazte-leraz irakasten duena) desagertu egin da 0-tik 14 urte bitarteko irakaskuntzan. Haur hezkuntzan guztira 747 ikasle daude; %52ak D ereduan (euskara hutsez) ikasten duelarik eta gainontzeko % 48ak murgiltze ereduan (ofizialki B ereduan). Lehen hezkuntzan eta O.H.On, 2.060 ikasle daude eta ereduak: %28a murgiltze ereduan, %26a B ereduan eta %46a D ereduan. Bukatzeko irakaskuntza ertainetan, hau da, REM, BBB, UBI, Lanbide Heziketan eta Modulo profesionaletan, 2.029 ikasle daude guztira, %53a A ereduan matrikulatu delarik eta %47a D ereduan.

Juanito Barberan, Udaleko hezkuntza teknikariaren ustez "azken urtetan gero eta ikasle gutxiago matrikulatu da A ereduan eta dagoeneko desagertu egin da baina era berean, horrek irakaskuntza ertainetan zein jarraipen duen begiratu behar da. Aurten, esate baterako, ikastetxe batean hainbat ikaslek A ereduan eman du izena eta horregatik, ertainetan atzerapausua izan da.

Horrez gain, unibertitatean zein joera dagoen ere begiratu behar da, izan ere unibertitatean %10ak bakarrik ikasten du euskaraz.

Bestalde, matrikulazio datuei begiratu gero, jaitsiera demografikoaren eragina somatzen dela esan beharra dago. Iazko datuekin konparatuta, haur hezkuntzan, adibidez, 16 ikasle gutxiago daude; lehen hezkuntzan eta O.H.On, berriz, 155 ikasle gutxiago eta Irakaskuntza ertainetan ikasle 1 gutxiago. Orokorrean Arrasaten 6.204 ikasle daude guztira. Musakolako eskolan 137 ikasle daude, San Andresen 185, Erguinen 255, S.F.Xen 1.145, San Viatorren 1.168, La Merceden 448, Umezaintzan 203, Institutoan 664 eta Eskola Politeknikoan 1.999.

Baina era berean, injinerutza ikasketek izan duten gorakada ere azpimarratu beharra dago, Eskola Politeknikoan iaz baino 223 ikasle gehiago matrikulatu dira eta. Beste datu interesgarri bat, 2 urteko umeen eskolarizazio tasarena da. 92an jaiotako 165 haurretatik 150 ume 2 ikasgeletan daude eta seguruenik portzentaia hori Gipuzkoako

Maltzaga-Urbina

Ostegunean Herri Batasunako batzarkideek prentsaurrekoa zuten ematekoa, Maltzaga-Urbina inguruan. Juntetan Maltzaga-Urbina ardatzarentzat onartu diren aurrekontuaren inguruko balorazioa egin behar zuten.

Autoentzako zerbitzu-gunea

Garagartzan egin duten autoentzako zerbitzu-gunea bukatua dagoela esan daitekeen arren, orain gestioa zelan antolatuko den erabakitzea falta da. Jende gehiena astebukaeratan hurbilduko dela kontutan izanda, zerbitzuguinea zelan antolatu pentsatzen ari dira.

Santamaina kalea

Asteleheneko gobernu batzordean, Santamaina kalea, 24tik 36 zenbakiraino zabaltzeko obrak adjudikatu ziren. Obra horiek egitea 18.500.000 pta kostako da. Bestalde, Monterrongo San Kristobal ermitara iristeko dagoen bidean egingo diren obrak ere adjudikatu ziren eta 4.800.000 pta ko kostua izango dute.

Gabonetako argiak

Gabonetako argiak jartzen hasiko dira laster eta aurten gainera, Ibai Artek eskatuta, Olarte kaleraino iritsiko dira apaigarriok.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretako fotokopiak
Planoen erreproduktzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62




JOSU TXOKOLATEGIA KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07



Asteartean, bilera egin zuten Zerrajerako auzian murgilduta dauden aldeek.

Zerrajera: konponbiderako egutegia jarririk

Asteartean, Zerrajera eta Transformadoseko komite enpresek, Alberto Santamariak, bi lantegietako gerenteak eta Iñaki Olaizola, UCEMeko administratzaile bakarrak, bilera egin zuten Zerrajeran bertan. Batzarrean, enpresen gestioa beregain hartu duen Consulting Zubizarreta gestoriako bi partaide ere izan ziren.

Bilera gorabeherekin hasi zen, langileen ordezkari batzuk atea itxi eta UCEM korporazioa patrimonio guztia langileen esku uzteko prest azaldu arte aterik ez zutela zabalduko esan zuten eta. Nahiz eta bilera giro horretan hasi, gatazka ez zen larriago-

tu eta bost ordutako bileraren ostean, gaueko bederatzietan batzarra bukatu egin zen.

Hizketaldian ez zen iritzi aldaketarik izan eta bulegoak langileen esku uzteko asmorik ez duela azaldu zuen UCEMek berriz ere. Hala ere, zenbait langileri dagoeneko langabezi-laguntza bukatu zaienez, alde guztiak arazoari ahal den eta azkarren irtenbidea ematearen alde agertu ziren eta horretarako egutegia finkatu zuten. Egutegi horren arabera, Arrasateko Udalarekin eta haziëndarekin hitzegingo dute lehendabizi. Udalarekin, plusbaliaren arazoa dago konpontzeke eta haziëndarekin zorrarena.

Egitamu orokorra

Harresi Aretoko erakusketa itxita dagoen arren, abenduaren 16ra arte zabalik izango da Udal Egitamu Orokorren gainean iritziak eta sugerentziak aurkezteko epea. Horretarako, udaletxeko ohizko bideak erabil ditzake edozein herritarrek, bakarka zein talde moduan, idatziz erregistroan sarrera emanaz.

Erakusketak jendearn artean izan duen erantzunaz gustora daude arduradunak, guztia 2.000 lagun inguru pasa da eta bertatik. Hala ere, Arrasateko bizilagun kopurua kontutan izanda, oraindik ere jendearn partehartzea handiagoa izatea espero zitekeen.

Iradokizunak aurkezteko epea bukatutakoan herritarren iritziak eta kezka aztertu eta beste testu bat landuko dute teknikariek eta alderdi politikoek ere aurretik hartuko dute jarrera. Aurrerago beste erakusketa bat egingo da jendaurrean, baina orduan alegazioak izango dira aurkeztu beharrekoak. Egitamu Orokorra 96an onartuko da.



URONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Datorren urteko udaberrirako proiektuak bukatuta izango direla espero da.

Urkulun beste urtegi bat egitea aztertzen ari dira

Urkulun beste urtegi bat eraikitzeke asmoa aztertzen ari da Gipuzkoako Diputazioa. Oraingoan, urtegiaren nahikoa ur dago baina laster Urkuluko ura Eibarrera ere bidaliko denez, aurrerantzean ur gehiago beharko da. Horregatik, Urkulu baino behe-rago edo Arantzazu errekan beste urtegi bat eraikitzea aztertzen ari dira. Aukera horien ikerketan 11 miloi gastatuko dira eta udaberrirako proiektuak bukatuta izango direla espero da. Horretaz gain, Eibarrera ura eramateko lotura ere egin beharko da. Urkulu eta Soraluze bitartekoa eginda dagoenez, orain Soraluze eta Eibar bitartekoa egitea baino ez da falta.

Bestalde, ura garbitzeko lantegia ere handitzen ari dira Urkulun. Orain arte, segunduko 250 litro ur tratatzeko gaitasuna zuen araztegiak baina orain 500 litrotara gehitu nahi da gaitasuna. Era horretan aurrerantzean ur kopuru gehiago garbitzeko ahalmena izango du.

Urari fluorra botatzeko ikerketek ere aurrera jarraitzen dute eta Osakidetzak baimena ematen duenean, barruko kontrol sarea antolatu eta urari fluorra botatzen hasteko asmoa dago. Hortzetako kariesa eragozten duelako bota nahi diote fluorra, baina fluorrak osasunean sortzen dituen ondorioen inguruan iritzi desberdinak daude.

Gorpu-hondarrak

Aldaiko Kanposantuko 16-17 eta 18 zenbakidun gorpu-hondarrak hobitik ateratzeko lanak egitea erabaki du Udalak. Lan horiek datorren urteko otsailaren 1etik aurrera egingo dira. Udaletxe-ko iragarki taulan eta hilerrian jarrita daude izen zerrendak eta horietako pertsonaren baten hondarrak jaso nahi dituzten herritarrek, San Kristobalko bulegora joan beharko dute eskatzera. Horretarako, honako ordutegi hu izango da: goizeko 10etatik 11etara eta arratsaldean, 2.30etatik 4.30etara. Zapatu eta domeketan, berriz, itxita egongo da bulegoa.

Ur eta zabor tasak

Aurtengo 3. hiru hilabeteko ur eta zabor tasaren orainagiriak ordaintzeko epea zabalik dago eta azaroaren 3tik abenduaren 20ra arte egin ahal izango da borondatezko epean. Epe hori pasa ondoren, %20ko galkarguaz kobratuko zaie ordaindu ez duten herritarrei.

Karlos Oianguren
Belarritako, kate eta eraztunen konponketa
Metalak urtu eta eraldatzea

Biteri, 13 behea Tfnoa: 79 34 26

Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea Tfnoa: 77 14 24




Azken 2 urtetan AEDK antolatuta auzo-lantegietan iparraldeko ikastolen alde lanean jardun izan duten guztiei bazkaria antolatu zieten

Xalbador ikastegiko arduradunek pasa den zapatuan, esker onez. Denek joaterik izan ez bazuten ere, 80 bat lagun elkartu zen bazkaria daztatu

eta Iparraldeko guraso eta lagunekin une gozoak bizi izatera. Bazkaria Kanboko ikastolako frontoian izan zen, aurten eurek egin duten frontoi horretan.

Diara diseinu agentziak, "Sigma-book" josteko makinaren diseinu grafikoa egin du. Sigma-book josteko makinaren sortzailea Tibor Arvai frantziarra da, fabrikantea Sigma enpresa eta diseinua egin duena, Atxabaltan kokatua dagoen diseinu etxe hori. Produktu berria azaroaren 25ean aurkeztu da Madrilen.




ARKO elkarteak Udalaren esku utzi du berak erositako tresneriaren jabetza. Hala ere, ATB eta A. Presseko tresneriaren erabilpena bere esku izango du, aste honetan Uda-

laren izenean **Xabier Zubizarreta** alkateak eta ARKO-ren ordezkari gisa **Agurtzane Gainzarain** gerenteak sinatu duten hitzarmenaren ondorioz.

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



PEÑAKOBA


Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
ARRASATE
Lizaur Arkitektoa
Tfnoa: 78 05 60
OÑATI



GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78



Meca tailerrek, bizikleta urte baino gehiagoko aren izena eman zen jakibatzen zozketa egin dute, zaharra tailerlean utzi tera eta zorteduna **Manuel Tejeiro** atxabalakotxe berria erosi eta 10 Joan zen astean irabazle-rra izan da.

IZEN PROPIOAK

● **Mirari Korta**, 26, arrasatearra, Aita Menni Ospitaleko Osasun pastoraltzako begiralea izango da aurrerantzean. Gizarte laguntzaile ikasketak egin zituen Donostian eta bertako Udal Abegi Etxean lan egin du orain arte bost urtez, terapia okupazionalako begirale lanetan.

● **Javier Ruiz de Munnain**, 45 urte, aguraindarra da Ikerlaneko komu-nikazio arduradun berria. Ikerlaneko dokumenazio eta Harreman Pertsonalaren sailean lan egingen zuen kargu berria hartu aurretik. Eskola Politeknikoan Injineritza tekniko-elektronikoa ikasi zuen.

● **Iñaki Odriozola**, 33 urte, elgoibartarra. "Imajina ezazu Euskadi" Central Hispanoko, lehiaketan poesia sailean lehen saria jaso du. Arrasateko Institutoan filosofiko irakaslea da Iñaki.

Agus Arregi eta Maite Rodriguez arrasatearrak

Musakolako elizan ezkondu ziren urriaren 22an. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean izan zuten eta ezkon-bidaian Santo Domingon egon dira. Zorionak, bikote!



ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

NAROKI


Urrezko bitxiak

ERDIKO KALE, 23
ARRASATE



EGIZU KEINU NATURALA

Ez zaizu ezer kostatzen



Izugarri balio du



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentua
Departamento de Obras Hidráulicas y Medio Ambiente

Futbito 94-95

Txapelketa

ZALDIBAR ZALDIBAR

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Irabazten jakiteko, galtzen jakin behar

Zaldibar txapelketa aurrera doa, ohizkoa baino lasaiago, gainera. Orain arte egon diren arazoak ez dira asko izan eta denboraldi honetan ez dugu jokalarien arteko hikamikarik ikusi. Hala ere, badaude talde batzuk faborito tituloa gainean daramatenak eta partiduren bat galtzea tokatzen zaienean, nahi baino buruhauste gehiago ematen dutenak. Talde hauek, garbi esateko, ez dakite galtzen, eta galtzen dutenean, euren porrotaren errudun epaileak izaten dira sarri. Multzo honetan Fosforos, Txeyenex, Argi Ibili,

Zuloak eta Equus sar genitzake, besteak beste. Irabazten dutenean talde jatorrak, baina kontrakoa datorrenean, bronkazale sutsuak.

Partiduak galdu eta irabazi gabiltzan honetan, beste arazo baten aurrean aurkitu dira antolatzaileak. Hasiera batean abenduko zubian jardunaldia jokatuko zela esan zuten arren, azkenaldi honetan abenduan jokatzearen kontra azaldu dira talde desberdinetako jokalaria eta egoera pil-pilean dagoela ikusita, berriro ere gaia aztertzea erabaki dute antolakuntzakoek.

UGARTE


Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

Txitxinpe

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Futbito Txapelketa

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
BUKANAK	7	7	0	0	35	20	14
SALENCO Y KONP.	7	6	0	1	39	15	12
ZULOAK	7	5	2	0	29	18	12
FOSFOROS	7	5	0	2	27	16	10
CERV. LEINTZ	7	5	0	2	40	15	10
ADELAIDA HAIZEA	7	4	2	1	30	16	10
KRISKIBALDA	7	5	0	2	25	24	10
ARRASTEKIROLAK	7	3	2	2	33	27	8
HIREI	7	3	1	3	39	25	7
FRAGUEL GOL	7	3	1	3	22	24	7
LOS DALTON	7	3	0	4	24	31	6
ZOTZ	7	2	2	3	17	21	6
EZT. EGIN ARTE	7	1	3	3	20	40	5
ATERPE	7	2	1	4	18	28	5
GANBELAS	7	1	2	4	19	22	4
INSERT COIN	7	2	0	5	24	38	4
ASTOEN VILLA	7	1	1	5	27	41	3
BAYER LEINTZ	7	1	1	5	18	36	3
STRAUSS	7	1	0	6	25	34	2
ILUNA TABERNA	7	1	0	6	15	41	2

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	7	7	0	0	45	9	14
PEPELUS	7	6	0	1	40	15	12
LOS DIMY	7	5	1	1	48	16	11
TXEYENEX	7	5	1	1	38	17	11
UGLUS TXINATO	7	4	2	1	50	17	10
SUM. UGARTE	7	4	2	1	32	13	10
TETROLEROS	7	4	1	2	33	15	9
NUEVO TABERNA	7	4	1	2	29	25	9
TOTEM	7	3	2	2	31	20	8
BERANGO SUK.	7	4	0	3	23	20	8
PUB PEOPLE	7	4	0	3	30	32	8
NO COMMNET	7	3	2	2	21	31	8
DANOK LAGUN	7	1	3	3	26	27	5
ANBOTOSTE	7	2	1	4	21	27	5
ARRASATE ZOO	7	1	1	5	17	41	3
MONTERREY TAB.	7	1	1	5	16	44	3
EZK. HONTZAK	7	1	1	5	10	39	3
TOVARITX	7	1	0	6	9	43	2
ORKATZ	7	0	1	6	16	49	1
LA BANDA	7	0	0	7	15	41	0

C taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	7	7	0	0	39	10	14
EQUUS	7	6	0	1	40	16	12
AUTOS MURU	7	5	0	2	32	11	10
LORATEGI POTR.	7	5	0	2	22	15	10
ORLANDO PIRAT.	7	5	0	2	32	16	10
KE OXTIAS	7	5	0	2	34	28	10
KOKA JUNIORS	7	4	1	2	21	19	9
ARTZAKOS UDALA	7	4	0	3	25	20	8
FRANTZIZKANER	7	4	0	3	24	20	8
PERRAHOTSA	7	4	0	3	21	18	8
NABARROS	7	4	0	3	26	26	8
EXCAV. LETE	7	3	0	4	20	16	6
BANEUKO	7	2	1	4	14	17	5
JO TA AKABAU	7	1	3	3	18	31	5
FOTO IMAGEN	7	1	2	4	21	30	4
BODISCA	7	2	0	5	21	32	4
POTROSORRI	7	2	0	5	22	34	4
TXOKO TABERNA	7	1	1	5	11	34	3
LEYA	7	1	0	6	16	44	2
DKB	7	0	0	7	13	35	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	7	6	0	1	39	12	12
MSM INGENIER.	7	5	1	1	35	13	11
AC SURCOS	7	5	1	1	43	23	11
MIKELOS	7	5	0	2	36	19	10
OJO AVISORE	7	5	0	2	31	22	10
LOS HEREDIA	7	5	0	2	25	24	10
ANORTHOSIS AGU.	7	5	0	2	22	18	10
D. A IRIZTU	7	3	3	1	34	21	9
KAKAJAURI	7	4	0	3	26	21	8
SOKOAKOAK	7	3	2	2	18	21	8
B.Z SISTEMAS	7	3	1	3	17	20	7
ALTZA PORRU	7	3	1	3	19	17	7
LAUTHERBRUN.	7	3	0	4	28	31	6
MOTZ	7	2	1	4	31	22	5
BORROCK'N ROLL	7	2	1	4	22	25	5
TRONKOTEAK	7	1	3	3	24	38	5
SUKAR	7	1	0	6	18	37	2
TEODOLITO	7	1	0	6	15	43	2
RESAKAS	7	1	0	6	17	44	2
ELISABETH	7	0	0	7	10	39	0

Lan egin nahi baduzu,

Klase intentsiboekin



Lortuko duzu!

Erdiko kale, 37

Tfnoa: 79 90 36

JOVI

PINTURA EKOLOGIKOAK

Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex.

Neurritako felpudoak.

Pertsiana biribilkagarriak.

Ehunezko hormatakoak. Kortxoak.

Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87



Hiru partidu interesgarri jokatuko dira asteburuan: Fosforosek Zuloak-en kontra jokatuko du zapatuan Zaldibarren. Iturripen, Autos Muru eta Ke Oxtias! taldeen arteko norgehiagoka, lehiatsua izan daiteke oso, pronostikoak betetzen badira. Domekan, berriz, Pepelus eta Txe-yenex izango ditugu aurrez aurre Zaldibarren. Aipatutako neurketak ikusteko modukoak izango dira, zalantza barik.

BELARRIRA

◆ **Jokatzerari berriro.** Arrasate Kirolak taldeko Isaias Carrascok bete du partidu bateko zigorra. Beraz, datorren jardunaldian jokatzeko gertu egongo da ostera.

◆ **Neskek noiz?.** Zaldibar txapelketan zenbait neskek izena eman duen arren, oraindik ez dute partidurik jokatu. Ea bada, noiz animatzen diren eta euren maila kantxan erakusten duten. Zaldibarko txapelketan ez dago sexu desberdintasunik: guztiak joka dezakete. Ez ahaztu eta animatu!

◆ **Golak.** 7. jardunaldian gol ugari sartu da, guztira 301 gol lortu dituzte talde desberdinek. Trikiti taldeak sartu du jardunaldiko gol gehien, 12 gol partidu bakarrean. Los Dimy dator jarraian, 11 gol sartu eta gero. Cerveceria Leintz eta Danok Lagun taldeek 9 gol sartu dituzte. A taldean 83 gol sartu dira, B taldean 93 gol, C taldean 66 eta azken taldean, berriz, 59 gol.

EMAITZAK

A taldea

- Bayer Leintz 6 Strauss 5
- Kriskibalda 6 Iluna Taberna 3
- Astoen Villa 1 Cerveceria Leintz 9
- Bukanak 6 - Zotz 3
- Salenco y Konpañia 5 Hirei 1
- Fosforos 7 - Fraguél gol 0
- Los Dalton 1 - Zuloak 3
- Ganbelas 1 - Arrasate Kirolak 5
- Insert Coin 7 - Eztanda egin arte 5
- Adelaida Haizea 9 - Aterpe1

B taldea

- Los Dimy 11 - Monterrey Taberna 1
- Petroleros 8 - Ezkiñako Hontzak 0
- Pepelus 3 Uglys - Txinato 2
- Orkatz 5 - Txe-yenex 5
- Anbotoste 2 - Suminis. Ugarte 4
- No Commnet 4 - Totem 4
- Arrasate Zoo 1 - Pub People 8
- Tovaritz 1 - Trikiti 12
- Danok Lagun 9 - Nuevo Taberna 4
- La Banda 2 - Berango sukaldeak 7

C taldea

- Perrahotsa 2 - Autos Muru 1
- D,K,B 2 - Potrosorri 5
- Nabarros 2 - Equs 6
- Lorategi Potroak 0 - Irati STS 6
- Bodisca 3 - Orlando Piratas 4
- Leya 1 - Baneuko 7'
- Artzankos Udalaiz 6 - Foto Imagen 1
- Excava. Lete - Koka Juniors 5
- Txoko Taberna 1 - Frantzizkanner 5
- Jotakabau 3 - Ke Oxtias! 7

D taldea

- Borrock 'n Roll 2 - MSM Ingenieria In. 5
- D.A Iriztu 3 - Altza Porru 3
- Sokoakoak 3 - Motz 0
- Elisabeth 1 - Kakajauri 3
- Los Heredia 3 - Mikelos 2
- B.Z Sistemas 5 - Resakas 2
- Teodolito 5 - Sukar 1
- Ojo Avisore 1 - Argi Ibili 6
- Anorthosis Agudah 3 - Lautherrunen 1
- A.C Surcos 5 - Tronkoteak 5

HITZALDIA

MONDRAUEKO EUSKERIE ZELAKUE DA

- "Mondrago inguruko euskara, antxineko euskara bikainena da".
- "Batzuendako zakarra eta basati besteko aberatsa eta jatorra".
- Zer dauko gure euskeriek bestiek ez daukienik?

HIZLARIAK: Gotzon Garate (Deustuko irakaslea, dialektologian aditua).
Jerardo Elortza (UNEDeko irakaslea, Arrasateko euskeraren ikertzailea).

NON: Udaletxeko pleno aretoan

NOIZ: Azaroaren 29an, martitzena Arratsaldeko 7etan

ANTOLATZAILEA



ASTEBURU HONETAN

Larunbata 26

Zaldibar

- 8:50 Sokoakoak - kakajauri
- 10.00 Strauss - Aterpe
- 11.00 Kriskibalda - Cerv. Leintz
- 12.00 Los Heredia - Resakas
- 13.00 Fosoforos - Zuloak
- 14.00 Insert Coin - Adelaida Haizea
- 15.00 DKB - Equs BTR
- 16.00 Petroleros - Uglys Txinato
- 17.00 Monterrey Tab - Berango Sukal.
- 18.00 Los Dalton - Arrasate Kirolak
- 19.00 D. A Iritz - Motz

Iturripe A

- 10.00 Perrahotsa - Potrosorri
- 11.00 Anorthosis Agugah - AC Surcos
- 12.00 Orkatz - Sum. Ugarte
- 13.00 Ganbelas - Eztanda egin arte
- 14.00 Elisabeth - Mikelos
- 15.00 Bayer Leintz - Iluna Taberna
- 16.00 No Comment - Pub People
- 17.00 Artzankos Udalaiz - Koka Juniors
- 18.00 Anbotoste - Totem

Iturripe B

- 12.00 Autos Muru - Ke Oxtias
- 13.00 MSM Ingenieria - Tronkoteak
- 14.00 Astoen Villa - Zotz
- 15.00 Los Dimy - Ezkiñako Hontzak
- 16.00 Lorategi Potroak - Orlango Piratas
- 17.00 Ojo Avisore - Lautherbrunner
- 18.00 Tovaritx - Nuevo taberna

Igandea 27

Zaldibar


- 8.50 Arrasate Zoo - Trikiti
- 10.00 Leya - Foto Imagen
- 11.00 Borrock n Roll - Aitz Porru
- 12.00 Pepelus - Txeyenex
- 13.00 Bukanak - Hirei

Iturripe A

- 10.00 Bz Sistemas - Sukar
- 11.00 Nabarros - Irati STS
- 12.00 Teodolito - Argi Ibil
- 13.00 Txoko Taberna - Jotakabau

Iturripe B


- 10.00 Salenko y Konpañia - Hirei
- 11.00 Bodisca - baneuko
- 12.00 Danok lagun - La Banda
- 13.00 Excav. Lète - Frantziskaner



“No Comment”: faboritoen aurrean haunditu

No Comment taldea ezustekoak ematen ari da azken bolada honetan. Duela bi jardunaldi **No Comment** eta **Txeyenex**, faboritoen artean dagoen taldea, aurrez aurre izan genituen eta emaitza 4-3 **No Comment**-en aldekoa izan zen. Aurreko jardunaldian, **Suministros Ugarteren** kontra neurtu zituen indarrak eta orduan ere irabazi, 2 eta 1. Azken jardunaldian, beste talde potoloa izan du aurrean, **Totem** hain zuzen ere. Emaitza **No Comment** 4 -**Totem** 4. Emaitza benetan onak lortzen ari da **No Comment** taldea eta geratzen diren partiduetan horrela jarraituz gero, bigarren fasera sailkatuko diren taldeen artean egon

daiteke. **Bayer Leintz** taldeak, bestalde, lehen garaipena lortu zuen **Strauss** taldearen kontra jokaturako neurketan; 3 puntu ditu une honetan. **Orkatz** taldeak **Txeyenesen** kontra bosna berdindu eta gero, lehendabiziko puntua igo du markagailura. **Teodolitok** ere, 5 eta 1 irabazi zuen **Sukar** taldearen kontra eta, dagoeneko, bi puntu ditu. **Tronkoteek**, **Ikutixotarrek**, iaz bigarren faseko txartela lortu bazuten ere, aurten gauzak ez doaz eurentzat ondo eta 16. postuan ditugu 5 punturekin. **Bestalde**, **Ke oxtias!** taldea ondo baino hobeto dabil eta talde berria izan arren, 6. postuan dago 10 punturekin.



B i d a i a k

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2

ARRASATE

Tfnoa: 79 14 06

Irene Zubizarreta

Tratu txarren aurrean zer egin?

Eibartarra, 30 urte, Psikologian dokorea. Psikologo-talde bateko partaidea da eta Bizkaiko Diputazioaren eta Emakunderekin sinaturiko hitzarmen baten ondorioz, tratu txarrak edo eraso sexual motaren bat jasan duten emakumeekin lan egiten du. Etxeko tratu txarren eragin psikologikoez berba egiteko eskaerak ekarri zuen Arrasatera, eta salaketa hori ekarri nahi izan dugu orrialde hauetara ere.

— Etxeko tratu txarrei buruzko daturik ematerik baduzu?

— Euskadi mailakorik ez daukat, baina 93an Bilbon eta inguruetan guk ikusi ditugun kasuez bai. Urte t'erdian 146 emakume izan genituen, eta urtebetean eta Bilbon barrarik, 350 dira. Horieta, gehienak ezkonduak dira, batzbeste 38 urteko adina, gehienek seme-alabak dituzte, goi mailako ikasketarik ez eta ezaugarri orokor bezala, gehienak ekonomikoki senarreren menpe daude: etxeko-andreak dira edo oso kualifikazio gutxiko lanetan ari dira. Kasuen %20an emakume hauek salaketa aurkezten dute, baina baina kasurik gehienetan, ez da salatzen, eta ez dira gizarte-zerbitzuetara joaten. Salaketak icerberg-aren punta baino ez dira izaten.

— Tratu txarra eta eraso sexuala zenbateraino egoten

dira lotuta?

— Etxeko tratu txarren kasu askotan senarraren aldeetik eraso sexualak izaten dira, emakumeak harremanik izan nahi ez eta senarrak behartu egiten du, tratu txarren barruan. Baina gero beste gauza erabat ezberdina bortxaketak dira, pertsona ezagunek, ezezagunek edo familiartekoekin egin ditzaketenak; baina bi gauza ezberdin dira.

Gero askotan batera agertzen diren arren, bereizketa egiten dugu: alde batetik tratu txar fisikoa dago: kolpeak, ostikadak eta kasu batzutan emakumearen heriotza ere bai. Gero tratu txar psikologikoa egoten da, mehatxuak, humilazioak, zeloak eta guzti hori, eta azkenik tratu txar sexuala, hau da, emakumeak nahi ez duela harreman sexuala izatera behartzea. Tratu txar fisikoa dagoenean, psikologikoa ere izaten da beti, eta batzutan tratu txar psikologikoa bakarrik ere izaten da. Kalte psikologikoa bestea bezain larria da, eta demostratzeko zailagoa ere bai, zoritxarrez.

— Zeintzuk izaten dira horien ondorioak?

— Alde batetik, depresioarekin erlazionatutako arazoak izaten dira: autoestima baxua duten emakumeak izaten dira. Ansietate handia, beldurra, gertatzen ari denarengatik eta horrela dagoelako kulpa sentimendu handia izaten du emakumeak; gero ondoez psiko-fisiologikoa ere izaten dira: lo egiteko



arazoak, nekea, buruko mina eta baita stress post-traumatikoa deitzen duguna ere.

— Zer egin behar du egoera horretan dagoen emakumeak?

— Lehenik eta behin, irteten ahalegindu. Nik animatu egingo nituzke, irtetea badago eta, gogorra izan arren. Tratu txar fisikorik badago, salatu, sendagilearengana joan, sendatu eta agiri bat egin diezaiola. Gizarte zerbitzuetan laguntza ekonomikoa, aholkularitza eta informazioa izaten da. Lehenengo emakumeak informatuta egon behar du, zer egin dezakeen jakin eta erabaki. Oraindik ez da gizonezkoekin lanik egiten, proiekturen bat badagoen arren. Egia esan, gutxi izaten dira errekuuperagarri diren gizonezkoak, gehienek ez dute parte hartu nahi izaten, ez dute ezer jakin nahi,

eurak ez dira sekula errudun eta arazo emakumearena dela uste dute.

— Tratu txarrak aipatzean beti umeak agertzen dira atzetik. Neskak eta mutikoetan eragin ezberdina izaten dute?

— Etxean tratu txarra dagoenean, kasuen %50ean umeak ere jasaten dute, neska edo mutila izan, zuzenean (jo egiten dituztelako) edo zeharka (mehatxu eta ulu bidez edo behar bezala zaintzen ez dutelako). Egoera horietan, berdin da neska edo mutila izan, baina egitea da seme-alaba bat baino gehiago dagoenean beti bat izaten dela kolpe gehien hartzen duena.

Etxean tratu txarrak ikusten dituzten umeak, errepi-katu egiten dute gero egoera hori: bortxakeria etxeko frustrazioei aurre egiteko bortxakeria bide eraginkorra eta onargarria dela ikusten dute eta neskek berriz hori onartu beharrean daudela uste izaten dute eta berarekin bizi izatera ohitzen dira.

● **“Tratu txarretatik irtetea badago, gogorra izan arren.”**

Ixo, liburutegian zaude


Maria Agirre

Isilik mesedez eta ibiltzean ahalik eta zarata gutxien atera. Ikasteko, dudaren bat argitzeko nahiz denborapasarako liburu eta aldizkariak aurki ditzakezu hemen baina horietan ez ezer idatzi eta ez orririk tolestu. Ah! eta etxean irakurtzeko libururen bat eraman nahi baduzu, ez ahaztu sarreran horren berri ematea, bestela alarmak joko du eta. Monterrongo Udal Liburutegian sartzeko kontutan izan beharreko arauak dira guzti horiek, baina betebeharrak batzuk esigitzen dituen tokia baino zerbait gehiago da liburutegia.

Monterron jauregian dagoena, liburuen erreinua da. Hiztegiak, entziklopediak, nobelak, komikiak, atlasak... kolore, tamainu, gai eta adin diferentetarako liburuek betetzen dituzte udal liburutegiko apalak. Guztira, 18.000 liburu daude. Astelehentik larunbatera bitartean goizez nahiz arratsaldean, haur liburutegiko 60 aulkiak eta heldueneko beste 44ak liburu guzti horien beharra duten irakurlez betetzen dira.

ANTOLAMENDUA

Monterrongo liburutegira sartzeko nahiz irteteko,



Jendea ikastera, irakurtzera edo denbora pasatzera joaten da liburutegira.

beharrezkoa da sarreratik pasatzea. Bertan, irakurgairen bat eraman nahi dutenei fitxa betetzen zaie eta liburuari, berriz, alarma kendu. Dendetako produktuek bezala, Monterrongo liburuek ere alarma dute, orain dela urte batzuk arte zenbaitek liburuak poltsan sartu eta etxera aldegitzen zuen eta.

Gaztetxoendako komiki, aldizkari, liburu eta ipuiez beteta, haur eta gazte liburutegia dago beheko solairuan. Bertako aulkiak arratsaldetan betetzen dira batez ere, baina goizetan maiz joaten dira gurasoak, seme-alabei irakurtzeko kontuak aukeratzera. "El Rey León" eta "Romeo eta Julieta eta sagu-

txoak" liburuak dira bertan aurki daitezkeen azken nobedadeak.

Lehen solairura igo eta helduen liburutegian zaude. Eskubitara hemeroteca, eguneko zazpi egunkari diferentetz eta 125 aldizkari baino gehiagorekin osatua. Eskumatarara, berriz, genero eta behar desberdinetarako hainbat liburu. Goizetan, egunkariak irakurtzera joaten direnak eta unibertsitariak gerturatzera dira batez ere eta arratsaldetan, osterara, eskola guztietako ikasleak. Bigarren solairuan Arrasateko idazle batzuen artxibategia dago: Garibairen gela, Jokin Zaitegi gela (bere liburutegia eta Jose Letonaren artxibategia

aurki daitezke han), Juan Carlos Guerraren mikrofilmak eta horiek irakurtzeko aparatua, Arrasateri buruz egindako hainbat lan, bideoak eta joan den mendeko aldizkari eta liburuak ere bai. Bukatzeko nahiz eta liburutegiaz harreman zuzena ez eduki, bigarren solairuan dauden ordenagailuen gela, hitzaldi aretoa eta goi-goiko pintura gela ere ezin aipatu gabe utzi.

Liburuak, berriz, bakoitza bere kodigoaz antolatuta daude eta katalogoaren bidez bilatzen dira. Bertan lan egiten dutenen esanetan hala ere, oso gutxitan erabiltzen da katalogoa eta jendeak nahia goizetan du zuzenean galdetzea. Horrez gain, intere-

seko gai batzuen inguruko informazioa ere, aldizkari katalogoan aurki daiteke.

ARRASATERAKO NAHIKOA?


Monterronen 18.000 ale eta beste 2.000 Santamainako liburutegian; Gipuzkoako beste herri batzuekin konparatuta, Arrasaten badago zer irakurri. Unescoren arabera, berriz, biztanle bakoitzeko hiru liburu egon beharko liratekenez, erdi mailako biblioteka dugula esan behar. Baina, egia esan, apalek ez dute gehiagorako ematen, liburutegiak arazoren bat badu, hori toki faltarena da eta. Momentu honetan ehun liburu baino gehiago ("El Jesuita" eta beste nobedade batzuk) almazean daude tokiren bat noiz izango zai.

Bestalde, unibertsitateko ak-kontutan izan gabe Arrasaten 6.200 ikasle inguru daudenez, irakurleei ere gauza bera gertatzen zaie aulkiekin, arratsaldetan tokiren bat aurkitzea zaila izaten da eta. Asun Agiriano, liburutegiko arduradunetarikoa baten ustez: "ideala auzo bakoitzean liburutegia egotea izango litzateke baina hori zaila denez, gutxienez eskoletakoak antolatu beharko lirateke. Jendea

etxeko lanak edo taldeko lanak egitera nahiz ikastera etortzen da eta liburutegia horretarako ez den arren, ezin ditugu bota. Ikasle horien beharretarako aparteko tokiren bat beharko litzateke". Liburutegira hurbiltzen den jende kopurua, gainera, egunez egun hasiaz doa. Gaur egun 4.883 bazkide ditu eta egunero hamarren bat laguni egiten omen zaie bazkide-txartela.

AURRERANTZEAN ZER?

Epe motzera begira, Liburutegia informatizatzea izango da eginbehar garrantzitsuena. Dagoeneko sistema informatikoa eta ordenagailuak erosita daudenez, langileak liburuen datuak ordenagailuan sartzen hasiak daude eta datorren urtean esfortzu handiena horretan jarriko dute batez ere. Asun Agiriaren berbetan "norbaitek libururen bati buruz galdetzen badigu, lehenengo liburutegian ba ote dagoen begiratu behar izaten dugu eta beharrezkoa bazaio, ondoren zein bazkidek hartu duen begiratu behar da. Guzti horretan denbora asko galtzen dugu. Informatizatutakoan, segituan jakin ahal izango dugu liburua non dagoen eta "moroso-



Hemerotekan azken bi urtetako egunkariak gordetzen dira.

en" berri ere segituan eman-gu digu ordenagailuak".

Bestalde irudien bidez ere gauzen berri jakiterik badagonez, Garibairen gelan bideoteka zerbitzua ere jarri nahi da. Orain badago bideoak etxera eramateko aukera, baina bideo aparailua eta guzti izango duen gela antolatu eta arautzea da asmoa. Horrez gain, liburuen depositoa ere abian jarriko dute.

Hainbat datu

- Hemendik gutxira Larousse entziklopedia berria ekarriko dute: 348.000 pta kostako da.
- Ingelesko, frantseseko eta italiarazko liburuak ere badaude, eta beste hainbat hizkuntzako hiztegiak ere aurki daitezke.
- Liburu garestiena: "Oposiciones al cuerpo general de maestros" (14.000 pta)
- Momentu honetan hamabost moroso inguru daude, baina orain dela hiru urte liburua etxean duenik ere badago.
- Aurten ia 3 miloi gastatu dira liburuak erosten. 1.300.000 pta Jaurlearitzak eman ditu.
- Azkenaldian Atxagaren "Gizona bere bakadadean" nobela asko irakurri da. "Arrasate Gure Herria" liburua ere asko erabiltzen da.
- Aurten helduentzat 1.200 liburu berri erosi dira eta gaztetxoentzat 500. Erosketak herriko liburutegian egiten dira.



Liburutegira gurasoak ere joaten dira, seme-alabentzako ipuinak aukeratzera.



Kirolari eta kirol taldeetako ordezkari asko bildu zen Herriko plazan azteazkenean.

Aukearen azken erabakiaren kontrako ekintza

Arrasateko rugby, saskibalo, pilota, eskubalo, karate, igeriketa, Judo, Gimnasia Erritmika, Besaide eta zikloturisten kirol erakundeetako jokalarari eta ordezkariak Aukearen kontrako protesta ekintza egin zuten azteazkenean Herriko Plazan arratsaldeko 7etan.

Kirol talde desberdinei kirol instalakuntzak erabiltzeagatik kuota bat ezarri die Aukeak. Kuota 6.500 ptakoa da jokalarari bakoitzeko. Taldeko jokalarari guztiak ordaindu behar dute kuota eta jokalariek euren poltsikoeetatik ordaintzen ez badute, taldeek hartu behar izaten dute diru kopurua euren gain. Talde guztiarentzat

Aukeari eman beharreko dirua asko bada ere, aurrekontu handia ez duten taldeen egoera ekonomikoa asko larritzen da ordaindu beharreko kuota hori dela eta, multzo honetan Rugby taldea sar daiteke besteak beste. Beraz, une honetan Arrasateko kirol talde desberdinek jokalarari federatuta edukitzearen diru kopuru bat ordaintzeaz gain, beste kuota bat ordaindu behar izaten diote Aukeari Udal instalakuntza erabiltzen dituztelako. Kirol talde desberdinek entrenamendutan eta partiduetan bakarrik erabiltzen dituzte instalakuntzak eta ez nahi dutenean. Arrasaten horrenbeste talde

dagoenez, entrenamendu orduak eta partidu egunak ere konpartitu egin behar izaten dituzte sarri.

Kuota hori ordaintzea gehiegizkoa dela diote kirol taldeetako ordezkariak eta orain arte ordaindu ez dutenez, Udalak taldeei ematen dien subentzietatik kopuru bat kentzea izan da Aukeak hartu duen erabakia. Aukea eta kirol taldeen arteko arazoa, beraz, denboraldia hasi zenetik dago pilipilean baina azken bolada honetan areagotu egin da. Kirol taldeek gaia berkontsideratzea eskatzen dute salaketa ekintzarekin eta era berean, alde biak elkarriketa sakonetan hastea.


PENALTIAK

● **Urbina Maltzaga** saskibalo taldeak neurketa garrantzitsua bezain zaila du larunbatean Gijonen. Trebol Gijón eta Urbina Maltzagak neurtuko dituzte indarrak. Trebol Gijon taldea 3. postuan dago sailkapen nagusian 14 punturekin. Jokatutako 8 partiduetatik 6 irabazi egin ditu eta 2 bakarrrik galdu. Talde sendoa da eta iaz ere ACB ligara igotzeko zorian egon zen. Urbina Maltzagak, ostera, 10 puntu ditu eta sailkapenean 13. tokian dago. 8 partidu jokatu ondoren 2 irabazi egin ditu eta gainontzeko 6ak galdu. Arrasateko taldeak ilusioz beterik hasi zuen EBA liga, baina zoritxarrez ez du zorte handirik izan jokaturako partiduetan. Dena dela, taldeak ez du itxaropena galdu eta ahalik eta partidu txukunena egiteko gertu hartuko dute Gijonoko bidea Txus Brizuelaren mutilek. Urbina Maltzaga taldeak jokalarari guztiak jokatzeko puntuan daude, ez dago lesionaturik, ezta ikututa dagoenik ere. Esandakoak esan, badakigu larunbatekoa ez dela Urbina Maltzagarentzat txantxetako neurketa izango eta irabaztea zaila izango den arren, ea zortetik duten eta berri pozgarriekin datozen.

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerrias, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE

Motorrez josita egon zen Udala domekan


Arrasateko motozale taldeak antolatuta Trial Txapelketa jokatu zen domeka goizean Udala auzoan. Guztira 14 gidarik partu zuten parte eta txapelketan 3 maila egon ziren: juniorrak, seniorrak eta nagusiak. Ibilidibeak 8 zonalde desberdin izan zituen eta partehartzaileek 3 buelta eman behar izan zizkieten kilometro bateko ibilbideari. Egin beharreko lana bukatu zenean, horrela geratu zen sailkapena. Juniorretan lehen postua Igor Susperregik eskuratu zuen 90 punturekin, bigarren Enrique Ricker geratu zen 97 punturekin. Hirugarrena, ostera, Albaro Garcia izan zen 105 puntu lortuz. Seniorren mailan trebeena Diego Urreta izan genuen, besteak baino akats gutxiago egin ondoren, sailkapeneko aurreneko postuan kokatzea

lortu zuen 45 puntu eskuratu; jarraian Imanol Amundarain sailkatu zen 50 punturekin eta Fede Perez hirugarrena izan zen 53 punturekin. Nagusienetan ere, egon zen

besteak baino trebeagoa izan zenik, eta hori Luis Mari Quintana izan genuen 86 puntu lortuz, nagusien mailako onena izan zen eta jarraian Vicente Palomino

sailkatu zen bigarren postuan 105 punturekin.

Ez da ahaztu behar Udalan jokatu zen txapelketa Euskadiko txapelketarako baliagarria izan zela:



Motorzaleek ondo gozatzeko moduko ikuskizuna eduki zuten Udalan.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 1 Amorebieta 1
Emakumeak: Aloñamendi 0 Mondra 4
2. erregionala: Mondra 2 Lagun Onak 1
Jub. Ohorezko liga: Amoroz 0 Mondra 0
Jubenilak: Bergara 6 Arrasate 0
Lehen Kadeteak: Arrasate 1 Bergara 0
2. kadeteak: Arrasate 6 - Gazteak 0
Infantilak: Beasain 6 Arrasate 2
Hurrengoak:
3. maila: Durango - Mondra. Igandea. 5etan. Tabira.
Emakumeak: Mondra - Bergara. Igandea. 3.15etan. Atxabalpe.
2. Erregionala: Elgoibar - Mondra. Larunbata. 5.15etan. Mintxeta.
Jub. Ohorezko liga: Mondra - Ordizia. Larunbata. 3.30etan. Atxabalpe.
Jubenilak: Aloñamendi - Arrasate. Igandea. 11.30etan. Ibarra.

Lehen kadeteak: Aloñamendi - Arrasate. Igandea. 10etan. Ibarra.
2. Kadeteak: Arrasate - Bergara. Igandea. 9.30etan. Atxabalpe.
Infantilak: Arrasate - Aloñamendi. Igandea. 11.30etan. Atxabalpe.

Saskibaloi

Eba Liga: Urbina Maltzaga 74 Viña Costeira 79
Seniorrak S-23: Urbina Maltzaga 59 Ordizia 71
Juniorrak A: Urbina Maltzaga 87 Iraurgi 43
Juniorrak B: Aralar Kirolak 51 Urbina Maltzaga 37
Seniorrak Emak: Urbina Maltzaga 71 Alde Zaharra 17
Kadeteak A: Urbina Maltzaga 61 Askatuak 74
Kadeteak Emak A: Urbina Maltzaga 37 Mary Ward 46
Kadeteak Emak B: Irurok Aloñamendi 27 Urbina Maltzaga 25

Hurrengoak:

Eba Liga: Trebol Gijon - Urbina Maltzaga. Larunbata. 7.30etan. Gijon.
Seniorrak S-23: Ostadar - Urbina Maltzaga. Larunbata. 4etan. Lasarte.
Juniorrak A: B.K.L.CAF - Urbina Maltzaga. Larunbata. 11etan. Beasain.
Juniorrak B: Urbina Maltzaga - Ikastola Urtek. Larunbata. 4etan. Musakola.
Seniorrak Emak: Ondarraitz - Urbina Maltzaga. Igandea. 11etan. Hondarrabin.
Kadeteak A: Urbina Maltzaga - Aldapeta. Larunbata. 12etan. Musakolan
Kadeteak Emak A: Ondartza Hondarrabia - Urbina Maltzaga. Larunbata 4etan. Hondarrabin.
Kadeteak Eak B: Urbina Maltzaga - Almen B. Larunbata. 4etan. Musakolan.

Eskubaloia

Lehen maila: Arrasate 28 Casablanca 21
Lehen territoriala: Arrasate 13 Bidebieta 28
Hurrengoak:
Lehen maila: Cruz Mayor - Arrasate. Larunbata. 8.30etan. Telde.
Lehen territoriala: Atsedena
Jubenilak: Arrasate - Usurbil. Larunbata. 4etan. Iturripen.

Futbito

Lehen maila: Jamones Claudio 2 Arrasate 6
Arabako territoriala: Bar Marino 9 Arrasate 5
Hurrengoak:
Lehen maila: Arrasate - Antenavision. Larunbata. 6etan. Iturripen.
Arabako territoriala: Lehoia - Arrasate. Larunbata. 3.15etan. Mendizorrotxa.

Rugby-a

Lehen maila: Arrasate 5 Elorrio 34
Jubenilak: Arrasate 10 Eibar 45
Hurrengoak:
Lehen maila: Ordizia - Arrasate. Larunbata
Jubenilak: Urretxu - Arrasate. Larunbata

Pilota

Kadeteak: Zumarraga 22 Arrasate 13
Jubenilak eskuz banaka: Arrasate 18 Lazkao 7
Jubenilak eskuz binaka: Idizialab 17 Arrasate 22
Juniorrak: Arrasate 22 Eskoriatza 7
Nagusiak eskuz banaka: Arrasate 5 Aretxabaleta 18
Nagusiak eskuz binaka: Arrasate 21 Elgeta 22
Hurrengoak:
Paletan: Arrasate - Alta. Larunbata. 11etan. Musakolan.

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE



San Juan, 14 etxebaia Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Alkohola gure bizitzan (I)

Gure gizartean alkohola aspalditik ezagutzen da. Egoera desberdinetan edaten da alkohola, hala nola, laun arteko harremanetan, familiako ospakizunetan, bakardadean eta abarretan. Edateko era desberdinak ere badaude: gazteek esate baterako gehienetan astebukaeretan edaten dute eta zaharrek txikiteoari eusten diote.

Alkohola da gaurkoz gure gizartean drogarik hedatuena. Mota askotakoak dira alkohola edatearen zergatiak, lagunartean sartzeko eta beste artean nabarmentzeko, esperientzia berriak izateko, barne borroka edo tentsiogenetik ihes egiteko eta beste batzutan atsegin dutelako, besteak beste.

Edaten hasten denean, hasiera batean oso goiz sentitzen dira alkoholaren efektu

edo ondorioak, nolabaiteko euforia bat, hitzegiteko gogoia, atrebentzia handiagoa, fisikoki moteltasun bat...

Baina poliki-poliki efektu berbera lortzeko gero eta alkohol gehiago edan behar da eta fenomeno honi tolerantzia deitzen zaio. Edaten jarraitzen bada alkoholaren beharra sentituko da eguneroko bizitza egiteko eta pixkanaka-pixkanaka alkoholismoaren munduan sartzen ari da. Gai-xotasuna urteetan zehar garatzen da, 15-20 urteren buruan gutxi gorabehera.

Alkoholismoa. Alkohola duten edariak irensteko grina eta ohitura dutenen menpekotasuneko egoera da. Beraz, alkohol-toximania da, drogodependentziako egoera bat.

Alkoholaz dependentsia

psikologikoa nahiz fisikoa izan daiteke. Dependentsia edo menpekotasun psikologikoak drogazalea psikologikoki alkohola hartzerakondizionatuta dagoela adierazten du, ez dela bere kabuz

aztura hori gainditzeko gauza. "Nik nahi dudanean utziiko diot alkohola edateari" esaten dute, baina alkohola edaten jarraitzen dute.

**EUGENIO ITURRIOTZ
MEDIKUA**



Hasiera batean oso goiz sentitzen dira alkoholaren efektuak.

LORAMENDIN

ESKIKO MATERIAL BERRIA
ANORAK-FORRO POLARRAK
MENDIKO MATERIALA
EDURRETARAKO OSAGARRIAK


Pasa zaitetz aldizkari
hau jasotzera

INTERSPORT
M · A · G · A · Z · I · N · E

Z E R N A H I A G O ?

Yolanda Sanchez

"Sikol" dendaren jabea



- Barruko erropa zuria, beltza ala gorria? Zuria.
- Zein koloretakoa saltzen da gehien? Zuria, jakina.
- Gizonak etortzen dira erostera? Bai, gero eta gehiago.
- Badituzue "Wonder-Bra" famatu horiek? Bai.
- Esaten duten bezain mirakulotsuak dira? Ba... bai.
- Gustatzen zaizu zure lana? Bai.
- Mutilentzat kaltzontzilo luzeak edo normalak? Luzeak.
- Liburu bat gomendatu: "Como agua para chocolate".
- Karta joku bat? Briska.
- Kolore horiak zorte txarra ematen dizu? Ez, eta gainera asko gustatzen zait.
- Dendaria ez bazina, zer izatea gustatuko litzaizuke? Idazlea.
- Ze ordutan oheratzen zara zapatu gauetan? Goizeko 3ak aldera.
- Joaten zara inguruko diskoteketara? Ez.
- Ez dituzu gustoko? Ez.
- Ezkondu ala elkarrekin bizi? Ezkondu.
- Musika "bakalaua" gustatzen zaizu? Ez, bat ere ez.
- Bertsolari bat? Ez dakit, ez ditut gehiegi jarraitzen.
- Arrasaten badago girorik? Bai.
- Zein kolonia erabiltzen duzu? "Agua de Loewe".
- Paperezko mukizapiak edo oihalezkoak? Paperezkoak.
- Mimontzia zara? Bai.
- Zer koloretakoak dituzu etxeko zapatilak? Berdeak.
- Bakero ilunak ala argiak? Ilunak.
- Dirurik aurrezten duzu? Bai.
- Mutilak bizarrak ondo egoten dira? Bai.

LABURRAK

Laburmetrai emanaldia

Azaroaren 28, 29 eta 30ean "Mugak Zaintzen" izenburupean, laburmetrai emanaldia izango da Monterronen. Filmeen gaia mugen inguruan sortzen diren arazoak izango da, hau da, inmigrazioa, arrazakeria, botere gatazkak... Proiekzioak arratsaldeko 7etan izango dira eta sarrera dohainik; pelikulak berriz, "Sur le carreau", "Chinatown", "Where is your helicopter?", "Qaggiq", "Renlandet, Land of the Reindeers" eta "Hevale bar giranim".

Alfabetatze ikastaroak

AEDko Euskalan taldeak, alfabetatze ikastaroak antolatu ditu euskaraz ondo hitzegi baina irakurtzen eta idazten ez dakiten lagunentzat.

Ikastaro hauen ordutegia eta egunak izena ematen dutenen artean erabakiko dira. Momentuz, astean 4 edo 5 ordu izango direla aurrakusten da. Prezioari dagokionez, ikastaro merkeak izango dira, dirulaguntzak eskatzeko asmoa dago eta.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Anuska Lasa

Goenkalen bizi den Arrasatearra

Ez, ez da Goenkalen bizi eta ez da Ane deitzen: Mondrauetarra da eta Gernikan bizi da. ATBko kamaren aurrean agertu zen lehenengoetariko aurpegia izan zen Anuskarena eta ordutik hona, bitsa bezain azkar igo du.



— Arrasate Telebistan “Bapirulauke” programarekin hasi zinetik gaur arte, bide luzea egin duzu. Ze balantze egiten duzu?

— Ezin naiz kezatu. Arrasate Telebistan “Bapirulauke” saioarekin hasi nintzen baina gero, prentsaren bitartez ETBko musika programa batetarako kasting bat antolatu zela jakin nuen, aurkeztu eta gaudituz egin nuen. Ehun eta piku pertsona aurkeztu ziren eta zorionez, ni aukeratu ninduten “Ikilimikiliklip” musika saiorako. Gero beste kasting batetara aurkeztu nintzen beste 7.500 lagunekin batera eta hor ere hartu ninduten. Kasting hori “Goenkale” serierako zen.

— Eskoriatzan magisteritza ikasi zenuen. Ez duzu ordea bide hori jarraitu...

— Ez, eta ez daukat bide hori jarraitzeko asmorik. Mundu honetan sartzea lortzen duzunean, aprobetxatu egin behar da eta gai-

nera, gehiago gustatzen zait hau.

— **Aurkezle ala antzezle?**

— Oso desberdina da; aurkezlearen eta aktorearen paperak guztiz desberdinak dira, baina bide batetik edo bestetik jo behar duzu derrigor eta niri askoz gehiago gustatzen zait antzeztea aurkeztea baino. Gainera, telebistako aktorea lanetaz gain, herriz herri antzerkiekin ere ibili izan naiz.

— **Mondrauetarra zara baina gutxitan ikusten zaitu.**

“Anek eta Anuskak ez dute antzik; Anuskak askoz jenio biziagoa du”

gu hemen...

— Bai, egia da. Gernikara joan nintzen bizi izatera eta asteburu batzutan etortzen naiz bakarrik. Gainera, “Goenkale”ko grabazioak direla eta, Donostian bizi naiz, beraz, ez Gernikan eta ez Arrasaten. Baina, beno, gurasoekin egotera ere joaten naiz noiz-behinka Arrasatera.

— **Zein da aktore lanaren alde txarrena?**

— “Goenkale”n adibidez, buruz ikasi behar den testu piloa. Ondorioz, ez duzu serieaz batera disfrutatzen. Grabaketak bukatu bezain laster, norbere logelari sartu eta testuak ikasten egoten gara guztiok.

— **Anek eta Anuskak badute antzik?**

— Ez, bat ere ez. Anuska guztiz kontrakoa da, askoz jenio biziagoa du. Ez dute antzik.

— **Ospeak asko pisatzen du?**

— Beno, azkenean ohitu egiten zara eta paso egiten duzu. Ikilimikiliklip-ekin “txapa” gehiago ematen zidaten eta benetan aspergarria da; dena dela, esaten dizut, paso egiten ikasten da. Betiko kasua: taberna baten zaude eta betiko 3 tipo plastak etortzen zaizkizu betiko roiloa botatzera...

LABURRAK

“Gazteak eta herri ekimena”

On Jose Maria Arizmendiartaren 18. urteurrena ospatzeko Gizabidea fundazioak antolatutako lehiaketan, 20 lan jaso dira. “Gazteak eta herri ekimena” gaiaren inguruko lana aurkeztu behar zen eta lehiaketa bi mailatan egon da banatua: 14-16 urte bitartekoentzat lehen maila eta 16-18 urte bitartekoentzat bigarrena. Lehen mailan 14 lan jaso dira eta bigarrenean, 6. Abenduaren lehen arratsaldeko 6.30etan, ekintza akademikoa eta sari banaketa egingo da.

AEDko lehiaketak

AEDko literatur lehiaketako partaidetza izugarri igo da aurten: ipun sailean 162 lan aurkeztu dira, iaz berriz, 95 izan ziren. Bertso-papereko partaidetzak ere gora egin du: iazko 19 lanen aldean, aurten 27 bertso-papereko aurkeztu dira. Gauza bera gertatu da komikiek: aurten 21 komiki jaso dira eta iaz 10 besterik ez. Poesia saileko partaidetza ordea jeitsi egin da: aurten 16 poesia lan aurkeztu dira. Argazki, diapositiba eta bideo lehiaketako partaidetzari dagokionez, izugarri jeitsi dela aipatu behar da.

“Iokin Zaitegi” Itzulpen Laburren lehiaketan ere, oso lan gutxi aurkeztu da.



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12

ARETXABAETA


Hiesaren Sentiberatze Ihardunaldiak

Deba Garaiko HIES EKIMENAK antolatuta eta Arrasateko udalaren laguntzaz, Hiesari buruzko Sentiberatze Ihardunaldiak egingo dira Arrasaten azaroaren 28tik abenduaren 1era bitartean.

Astelehenean, hilak 28, HIESari buruzko mundu guztiko kartelen erakusketa zabalduko da Monterronen. Horretaz gain, mahai informatiboak egongo dira eta diapositiba emanaldia eskainiko da Monterrongo aretoan.

Asteartean, HIESari buruzko bideo emanaldia eskainiko da arratsalde osoan zehar. Gaixotasuna ikuspuntu desberdinetatik ikusten duen bideo muntaia izango da. Goizez 10etatik 12etara eta arratsaldez 6etatik 8etara eskainiko da eta sarrera dohainik izango da.

Asteazkenean, Ana Luis Arrieta sendagileak, Marian Etxabe ONGko partaideak eta Domi Kortak, gaixo baten senideak, "HIESaren aspektu orokorrak eta egungo egoera" izenburupean, hitzal-



HIESarekiko jendea sentsibilizatzea da ihardunaldion helburua.

dia emango dute udaletzeko pleno aretoan. Bukatzeko, ostegunean eta HIESaren nazioarteko egunarekin batera, Todd Haynes-en "Poison" filmea botako

da Amaia Antzokian. Filme hau indarkeria eta sexua amankomunean duten 3 istoriotan dago banatuta: "Horror", "Homo" eta "Hero".

"Te Deum" laukoitza

Goikobalu, Gorosarri eta Zumarragako Goi Argi abesbatzek eta Bergarako Orfeoia, Hector Berlioz-en "Te Deum" obra ezaguna kantatuko dute batera abenduan eta urtarrilean zehar. Ideia hau Juanito Arzamendiri omenaldia egin zitzaionean bururatu zitzaizen Ruiz de Alegria eta Zugarramurdi zuzendariei eta bururatu bezain laster, praktikara eramatea pentsatu zuten.

Guztira 180 ahots izango dira Te Deum-a abestuko dutenak. Musikari dagokionez, Baionako Orkestrako 140 musikariek beteko te paper hori eta abesbatza eta orkestra zuzentzeaz René Zugarramurdi Baionako

Orkestrako zuzendaria arduratuko da.

Te Deum-ak ordu beteko iraupena du eta 7 zatitan eta 8 ahotsetara abestuko dute 4 abesbatzek. Abenduaren 3an eta 4an 4 abesbatzak entsaio orokorra egingo dute René Zugarramurdiarekin eta

orkestrarik gabe.

Emanaldiei dagokionez, 4 leku eta data desberdinetan izango dira: Abenduaren 17an Bergarako frontoian estreinatuko da; hilebete bereko 23an, Santamasetan beraz, Arrasaten egingo da Amaia Antzokian eta abenduaren 30ean, Hendaiako frontoian. Azken emanaldia urtarrilaren 7an eta Biarritzeko frontoian izango da.

Momentuz entsaioak oso ondo doaz. Edurne Abasolok, Gorosarriko lehendakariak eta Gurutze Arizabaletak, Goikobaluko idazkariak adierazi digutenez, "abesbatza emanaldiei dagokionez, bailara hontan sekula ez da hain gauza handirik egin".



Gurutze Arizabaleta eta Edurne Abasolo.

SHOT!
grabaciones

SHOT! grabaciones S.L.
Araba Etorbidea, 3 - 2. solairua
Eskatu Pabilioia
☎: 943 - 79 37 51



ARRASATE

Gipuzkoa

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



1956ean Udalan.

Udalan bertan atera zuten. 1956ko maiatzaren 10a zen eta Larrinetxe tabernan bazkaria egin eta gero jarri ziren Jose Mari Lasagabaster argazkilariaren kamararen aurrealdean. Lourdes Azkoaga eta Luzio Murgoitoren tabernan ahuntxumea jan zuten, bapo jan ere. Ez dakigu

ahuntzak ere eurekin bazkal-

du zuen, baina erretraturako behintzat alboan hartu zuten. Zutik daudenak ezkerretik hasita, **Raimundo Uribarren**, **Zubillaga** edo **Egiluz** (?), **XX** mutikoa, **Felix Otadui**, **Anastasio Ibarluzea**, **Lourdes Azkoaga**, **Urrutia**, **Bixente Barrutiabengoa**, **XXX**, **Ambrosio Leibar "Txanpon"**, **Jose Madinabeitia**, **Bi-**

xente Ugarte eta **Juan Bautista Uribarren**. Albo-

ko mutiko biak **XX**. Jarrita edo makurtuta daudenak, ezkerretik hasita, **Nikasio Pildain**, **Antonio Arrese**, mutikoa **XX**, **Luzia Azkoaga**, **Sekundino Garai**, **XX**, **Maria Larunbe**, **Fakundo Murgoitio**, **Paulino Lasanta**, **Luzio Murgoitio** eta **Patxi Zubia**.

ko mutiko biak **XX**.

Jarrita edo makurtuta daudenak, ezkerretik hasita, **Nikasio Pildain**, **Antonio Arrese**, mutikoa **XX**, **Luzia Azkoaga**, **Sekundino Garai**, **XX**, **Maria Larunbe**, **Fakundo Murgoitio**, **Paulino Lasanta**, **Luzio Murgoitio** eta **Patxi Zubia**.

UGARAN
jatetxea

MUGAK ZAINTZEN

Laburmetraien proiektzioa **GAIA:**

Mugen inguruan sortzen diren arazoak (inmigrazioa, arrazakeria, botere gatazkak,...)

AZAROAK 28, ASTELEHENA

- **“SUR LE CARREAU”**. 1988. Frantzia. 27'
- **“CHINATOWN: IMMIGRANTS IN AMERICA”**. 1976. EE.UU. 57'

AZAROAK 29, ASTEARTEA

- **“KOBARWENG O WHERE IS YOUR HELICOPTER?”**. 1992. EE.UU. 24'
- **“QAGGIQ”**. 1989. Kanada. 58'

AZAROAK 30, ASTEAZKENA

- **“RENLANDET. LAND OF THE REINDEERS”**. 1993. Danimarka. 36'
- **“HEVALE BAR GIRANIM”**. 1986. Holanda. 45'

Monterron Kultur Etxea
Arratsaldeko 7etan
Sarrera doan



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gazte eta Kirol Departamendua
Departamento de Juventud y Deporte



Egia hutsa be gauza sikua ei da.

**HATZ
HETZ
HITZ
HUTZ**

Nola hil zen?

1	2	3	4	5		6
7						8
9			10		11	
12		13				
14					15	
16				17		18
19				20		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Antzerki talde komikoa. 7. Garbitzeko erabiltzen da. 8. (Ald.) Mehe. 9. Ez eme. 10. Kategoria, gradu. 12. Laguntzeko prest egoten dena. 14. Heze. 15. Baiezkoetan baita, ezezkoetan ezta. 16. Peronismoaren aita. 18. Hemeretzigarren letra errepikatuta. 19. Musulmanen jainkoa. 20. Kontinente bat.

Bertikalak 1. Arraunntzi txikia. 2. Txilibitu. 3. (Ald.) Bizkaiko ibilgailuetan. 4. Remoren anaia birkia. 5. Asiako erdialdeko mendiak. 6. Bukaera. 8. Arantzadun landarea. 11. Aldapa. 13. Geratu aditzaren infinitiboa. 17. Sodioa.

Aries Pentsatzen hasi eta hain jatorra ez zarela iruditu zait.

Taurus Horoskopoa egiten duenak amorrua dizu. Horregatik opa dizu zorte txarra.

Gemini Zuk ez dakizu hitzegiten, burrundara ateratzen bakarrik dakizu.

Cancer Pekatutxo bat egin duzu baina hori edonori gertatzen zaio.

Leo Zure aurpegia museora eramateko modukoa da, mounstruo!

Virgo Ez daukazu bizikletaz ibiltzeko adinik. Noizean behin pasiotxo bat emanda nahikoa duzu.

Libra Ez zaitetz zinemara joan, bestela berriz ere negarrez bukatuko duzu asteburua.

Scorpio Hilabete honetan diru asko gastatu duzu; aurrezten ikastea komeni zaizu.

Sagitarious Izugarritzko konfidantza ematen duzulako, jendeak pena guztiak kontaktzen dizkizu.

Capricorn Etxera eskean etortzen zaizkizunei ez atea muturretan itxi.

Aquarius Zure hortzak ikusgarriak dira, banpiroa dirudizu.

Piscis Laster lanez aldatuko duzu, baina ez da oraingoa baino hobea izango.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA




DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Gurutze Irizar: Saharan erizain

Gurutze Irizar eta bere bi seme-alabak izango dira hurrengo "Ibilixan Dabilena" saioko gonbidatuak. Gurutze ormaiztegiarra da eta Ormaiztegin bertan bizi da, baina hainbat urte eman ditu Saharan erizain eta laguntzaile lanetan. Saharako Fronte Polisarioeko Nazioarteko Harreman buruarekin dago ezkondua eta bi seme-alaba ditu: Garazi eta Beñat. Garazi Saharan bizi izan da eta ederto moldatzen da saharauiarrez; Beñat ordea, betidanik Ormaiztegin bizi izan da; dena dela, hurrengo programan ikusiko duzuen moduan, biek ere ondo hitzegiten dute euskaraz. Imaginatuko duzue, familia honek badu zer kontatua.

Gainontzekoan, Mitarte-Garain egindako nekazal-turismoari buruzko erreportaiak zabaldu dira ere prestatu dizuzte Eneko eta Jonen.



27 Igandea

21.00etan
Mondragol

28 Astelehena

13.30etan
Mondragol (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

29 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

30 Astezkena

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Iñaxio Kortabarria, Errealeko jokalaria ohia.

1 Osteguna

13.30etan
Bakarka errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Ibilixan Dabilena.
Gonbidatua: Gurutze Irizar eta bere seme-alabak: Saharan erizain ibilitakoa. Erreportaia: Nekazal-turismoa.

2 Ostirala

13.30etan
Ibilixan Dabilena (errep.)
19.15etan
Marrakzi Bizidunak
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete Xabier
Ibarzabalek aurkeztua.
22.00etan
Marrakzi Bizidunak

SOLUZIOAK

Horizontaleak: 1. Txirra. 7. Xaboi.
8. Me. 9. Ar. 10. Maila. 12. Lagun-
kol. 14. Umel. 15. ere. 16. Peron.
18. rr. 19. Ala. 20. Asia.
Bertikalek: 1. Txalupa. 2. Xara-
mel. 3. Bi. 4. Romulo. 6. Amatera.
8. Elort. 11. Ike. 13. Gera. 17.
Hotzez.
Jergifikoa:
Na.

KOMIKIA



BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

Mendi taberna

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

Etxebizitzak

- **Jantzitako etxebizitza salgai** Uribe Auzoan, 5. zenbakia, 2. pisua. Tfnoa: 94-683 07 72.
- **Etxebizitza alokatuko nuke** eta beste lagun batzuk ere etxea osatzeko prest bazaude, jarri nirekin kontaktuan. Tfnoa: 81 21 71. (Xabier, 8etatik aurrera)
- **Bi oheko logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxea salgai Uribe auzoan.** 85 m². Tfnoak: 79 97 86 & 79 86 37.
- **Salamanca etxebizitza salgai.** 5 logela, egongela, 2 komuna eta sukaldea. Eguzkitua. Prezio arrazoizkoa. Komunitate gastu gabe. Tfnoa: (923) 23 55 85. Deitu arratsaldeko 2etatik 5etara.
- **Playa de la Rotan (Torreviejan)** etxebizitza polita salgai. 43 m². Hondartzatik oso hurbil. Tfnoa: 71 63 79.

Etxebizitza alokagai Erdiko kalean. 4-5 lagunentzat. Tfnoa: 77 03 38 / 79 18 03.

- **Neska bat edo bi behar dira Arrasaten etxebizitza betetzeko.** Dei egin Gasteizko tño honetara: 945-22 34 97. Edurne.
- **Neska behar da** Donostiako erdikaldean otsailetik ekainera etxebizitza osatzeko. 17.500 hilean. Tfnoa: 79 26 93. Raquel.

Lana

- **Klase partikularrak ematen dira:** kontabilitatea, estatistika, ekonomia, OHO eta UBI. Tfnoa: 77 04 82. Amparo. Esperientziaduna.
- **Umeak zaindu edo etxeko lanak** egingo nituzke. Baita garbitasun lanak orduka ere, taberna, etxe edo jatetxeetan. Tfnoa: 79 96 10. Maritxu.

• **Klase partikularrak.** Ingelesa. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 21 56. Edurne.

• **Klase partikularrak ematen dira:** latina, gaztelera, euskara, ingelesa. Maila guztiak: OHO, BO, GB, BBB, UBI... Esperientziadun lizentziatua. Tfnoa: 77 04 07. (Goyo).

• **Informatikako klaseak ematen dira.** Soinua, sistema eragileak eta grafikokoak. Tfnoa: 77 02 59. Iker.

• **Sasoiko emakumea** ume edo pertsona helduak zaintzeko prest. Deitu 79 23 54 tñora.

• **Frantsesezko mintza-praktikako klaseak** jasoko nituzke. Tfnoa: 79 22 13.

• **Etxeko lanak egin, haurrak zaindu** edo dendari lan egingo nuke. Tfnoa: 79 77 32 (M^a Carmen).

• **Baxuzko klaseak** ematen ditut. Tfnoa: 79 78 65. (Aitor).

• **Haurrak zaintzeko** edo etxea garbitzeko andra euskalduna eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.

• **20 urteko gaztea** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 44 86.

• **Haurrak zaintzeko edo etxea egiteko** esperientziadun neska eskaintzen da. Esperientzia dut, eta informea ere bai. Tfnoa: 79 76 27 (Maite). Dei egin goizeko 9etatik 11etara.

• **Haurrak zaintzeko edo etxea garbitzeko** esperientziadun neska eskaintzen da. Tfnoa 79 73 06 (Ana).

• **Haurrak zaintzeko** esperientziadun neska eskaintzen da. Tfnoa: 79 77 94. (M^a Eugenia).

• **Emakumeak etxeko lanak egin eta umeak zainduko** lituzke. Tfnoa: 79 31 58.

• **Software neurria.** Ikastetxeak, akademiak, lanbide liberalak, PYMEak, komertzioak eta tabernak. Tfnoa: 79 54 87. Carlos

• **Gaixo edo/eta adineko pertsonak** zaintzen ditut. Tfnoa: 945-17 07 28. Bautis.

Salerosketak

- **Garajea salgai Errekabarrenen, Atxabaltan.** Itxia. Tfnoa: 79 58 98.
- **Garajea salgai Atxabaltan.** Tfnoa: 77 04 90.
- **Gitarra akustiko eta elektrikoa saltzen ditut oso merke.** Tfnoa: 79 41 97.
- **Garajea salgai edo alokagai Altamiran.** Tfnoa: 79 36 79.
- **Zure telebista zaharra botatzeko asmotan bazabiltza,** erosteko prest egongo ginateke gu. Tfnoa: 79 53 40.
- **Garaje zabalik salgai** Uribarri etorbidean. Tfnoa: 79 88 24. Prezioa eztabaidagarria.
- **OPEL CORSA berria salgai,** gutxi erabilia (18.450 Km). Tfnoa: 79 25 22. Gauetan deitu 20,30etatik 23,00etara.

Denetarik

- **ASA argazkilaritza taldeak** etxean traban edo kendu guran dituzun altzari guztiak pozik hartuko lituzke. Harremanetarako dei egin 79 03 90 tño zenbakira.
- **Azaroaren 10ean giltza batzuk aurkitu zituzten** frantsiskotarren kalistroetan. Giltzak ARRASATE PRESSEN daude.
- **Ingeleseko kuadernoak galdu zait.** Aurkitu baduzu, dei egin 77 10 59 zenbakira.
- **Urrezko pultsera galdu nuen** azaroaren lehenengo astean Otorala kaletik Eskola Politekniko bitartean. Tfnoa: 77 08 74.
- **Goizeko 7etarako Urbinan egon behar baduzu,** nirekin etor zaitzeko kotxez. Buelta arratsaldeko 6etan egiten dut. Tfnoa: 79 91 63. Joseba.

Aste Gazte

Ikastaroak

• Hastapen mailako txaloparta ikastaroa, "Ttakun" txaloparta taldearen eskutik. Musakolako saloian, larunbat goizean, azaroaren 26an hasita otsailaren 11ra arte. Bi txanda: a) 9.30etatik 11.30etara b) 11.30etatik 13.30etara. Matrícula: 1.000 pta.

• Oñatiko Udalak, Eusko Jauriaritzako lan sailaren laguntzaz, "Haragi Deribatuak" ikastaroa antolatzen du, Deba Garaiko 18 urtetik gorako langabetuei zuzendua. Ikastaroaren hasiera abenduaren 15ean izango da, 400 orduko iraupena izango duelarik. Epea: azaroak 30.

Gaztemaniak

"Mugak Zaintzen" arte-bideoko laburmetraiak Monterronen ikusteko aukera dago, astelehen, astearte eta asteazkenean (hilak 28, 29 eta 30). Proiektzioak arratsaldeko 7etan izango dira. Tituluak: a) 28an "Sur le carreau". 1988. Frantzia eta "Chinatown: Immigrants in America". 1976. Estatu Batuak. b) 29an, "Kobarengoren Where is your Helicopter?". 1992. Estatu Batuak eta "Qaggip". 1989. Kanada. d) 30ean, "Renlandet. Land of the Reindeers". 1993. Dinamarka eta "Hevale bar giranim". 1986. Holanda.

Dirulaguntzak

• Aurten dirulaguntza jaso duten gazte taldeei gogorarazten zaie egindako ekintzen memoria aurkeztu behar dutela hile honen amaiera baino lehen.

Bekak

• Medicus Mundik, bi beken deialdia egiten du sendagileei zuzenduak.

Lehiaketak

• Aretxabaletako VII. Argazki Lehiaketa, Murruxikok antolatua. Nahi duten guztiak har dezakete parte. Gaiak: a) librea, eta b) mendia. Epea: abenduak 1.

• III. Komiki Lehiaketa, Jardun elkarteak antolaturik. OHOk 6. mailatik gorakoentzat. Euskaraz. Lanak taldean aurkeztea posi-

"Gaztetan oso radikalak dira ideiak, baina gero jabetzen zara zailak direla erantzunak".

MICK JAGGER



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

San Frantzisko Xabier



**ARRANTZAREN
INGURUAN
BERMEORA**



Arrasatetik Bermeora joateko zein herritatik pasatuko gara?

Arrasate, Elorriko, Durango,...



Iaz primeran pasatu genuen Lodosan, piper pote artean, ea aurten ere suertea dugun...

Bai, aurten sardina, atuna,..ikusteko aukera aparta izango dugu.



Kofradia zaharrea denok buru-belarri antxoaren substanzan.



Ze tresna da hori?

Hau? Orrotza, ume, orrotza!

Orrotza? Aiba..guk orratza deitzen diogu.



Niri gehien gustatu zaidana museoa izan da.

A! Ba... niri hozkailuak, a zelako hotza!



Hemen ipiniko ditut baleen argazkiak?

Bai. Horrela txostena osatuta geldituko zaizu, gero etxekoiei erakusteko.

Ferixalekua

☎: 79 64 79

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

ARRASATE

Tfnoa: 79 99 42

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

ARRASATE

Tfnoa: 79 00 43



H asteko,
modako sukaldearen
lehen platera.



B igarrenez,
sukalde funtzionalaren
5 sardezkak.



E ta postrerako,
betiko sukaldeare
eztia.

FAGOR